

Kultura

Marian Díaz Soldevilla: "Aitak margotu zuen Durangon zehar paseatzea proposatu gura diegu erakusketara datozenei". >14



"Sentsazio oso onak izaten ari naiz disko berriagaz: askok esan didate bazela sasoi"




Iñaki Etchezarraga 'Etxe' | Kantautorea >11

Urriaren 24an nagusien jantoki publikoa irekiko dute Durangon

Durangoko Udalak jantoki publikoa zabalduko du Adinekoen Udal Egoitzan, urriaren 24tik aurrera. Astelehenetik barikura, 13:00etatik 14:30era, eskainiko dute zerbitzua. Martitzeneko osoko bilkuran zerbitzuaren prezio publikoak onartu zituzten. Aurrekontuetan jasotzen zen proiektu honeguz nagusien autonomia sustatu gura dute udal arduradunek. > 3

"Munduko txapelketa batean domina irabaztea da nire helburua"

Ereriko baten osteko errekupeazio latza gaindituta, sasoiari dago Jonathan Castroviejo. Europako txapelketako erlojupekoan urrea irabazi du. Orain, munduko txapelketa du begiz jota. > 15



**UDAKO
2. ARGAZKI
LEHIAKETA**

anboto
komunikabideak

**EMAN ZURE BOTOA
UDAKO ARGAZKI LEHIAKETAN!**



www.anboto.org webgunean

Durango > 2

Bizikleten aparkalekuen segurtasuna hobetuko dute

Durangaldea > 4

Berton Bertokoak Jaurlaritzan erregistratu du bere eskaera

Atxondo > 9

Aitor Urienen gazta Bizkaiko onenen artean saritu dute

Mallabia > 8

Goita auzokoak ETB1eko Auzolan saioan protagonista

Herririk herri

Sinadura bilketa pediatria arratsaldeetan eskatzeko

Guraso talde baten ekimena da, 'change.org' gunean

ZORNOTZA J.D.

Guraso batzuek sinadura bilketa bat hasi dute change.org web-gunean, honako helburu honeguz: Osakidetza larrialdietako pediatria zerbitzua eskatzea Zornotzako Osasun Zentroan. Gaur egun, arratsaldeetan Durangora eta Gurutzetako ospitalera joan behar dutela azaltzen

dute sinadurak batzeko ematen dituzten arrazoiaren artean: "Zornotzan ume asko daude arratsaldean pediatriarik ez egoteko. Garai hauetan zerbitzu hori ez izatea atzerakuntza da. Gure seme-alaben osasunaz gabiltza". Atzo eguerdian, eskaera sinatu zutenen kopurua 1.220 lagunekoa zen.



Zornotzako Osasun Zentro berria.

Oinarrizko Lanbide Heziketarako lankidetzak

Iurretak aho batez onartu du hitzarmena

IURRETA A.B.

Oinarrizko Lanbide Heziketako programak garatzeko lankidetzak hitzarmena izenpetzea onartu du Iurretako udalbatzak, aho batez. Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Izurtza, Mañaria, Zaldibar eta Berrizko Udalek parte hartzen dute hitzarmen horretan.

2015-2016 ikasturterako hitzarmen hau Oinarrizko Lanbide Heziketako programak garatzeko da. Orain arte, Durangaldeko Amankomunaz-

goak kudeatzen zituen. Ikasturte honetan, baina, lehenengoz, Durangoko Udalak hartu du ardura hori. Intxaurrondon eskaintzen dira lanbide heziketako programa hauek, eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako programak dira.

Espainiako toki administrazioen arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko legea betetzeko, eta hezkuntza arloko berrantolaketak eraginda utzi dio Amankomunazgoak programa hauek kudeatzeari.



Udaletxe ondoan ere badago bizikleten aparkaleku bat.

Bizikleten lapurretak bikoiztu direnez, neurriak hartuko dituzte

Bizikleten aparkalekuen segurtasuna hobetu egingo du Durangoko Udalak

DURANGO Markel Onaindia

Bizikleten lapurreta kopurua bikoiztu egin da Durangon, iazko datuekin alderatuz gero. Horregatik, bizikleten aparkalekuetan segurtasuna hobetzeko neurriak hartuko ditu udalak. EH Bilduk aurkeztutako mozioa ia aho batez onartu zen martitzenean, PPren abstentzioa kenduta, eta orain, udaleko batzordean aztertuko dute segurtasuna hobetzeko zein sistema erabili.

Gaur egun, aisialdirako zein garraiorako erabiltzen da bizikleta Durangon. Bertako garraioaren %7,5 inguru bizikletaz egiten da, eta 11 kilometroko bidegorri sarea eraikita dago.

"Ondorio iluna"

EH Bilduren arabera, "herrita-

ren partaidetzari eta kontzientziazioari esker", kaleetan gero eta bizikleta gehiago ikusten da, eta lapurreten gorakada "ondorio iluna" dela uste du. Hori dela eta, bizikletaren erabilera

EH Bilduk aurkeztutako mozioa ia aho batez onartu zuten, PPren abstentzioa kenduta

Bertako garraioaren %7,5 inguru bizikletaz egiten da, eta 11 kilometroko bidegorri sarea eraikita dago

babesteko neurriak behar direla dio koalizioak.

Bestalde, ingurumenaren arloan bizikletak daukan garrantzia nabarmendu du EH Bilduk: "Ez du airea kutsatzen duen gasik isurtzen, eta horrek Durangoko kutsadura maila gutxitzen laguntzen du".

Batzordean jarraitu

Aparkalekuetako segurtasuna hobetzeko sistema zehatz bat proposatu zuen EH Bilduk osoko bilkuran, eta hori martxan jartzeko, aurrekontuan aldaketa bat egitea ere bai. Baina EAJK eta PSE-EEK hobeto ikusten zuten gaia udal batzordean lantzea, eta alderdiak adostasunera ailegatu ziren. Beraz, sistema egokiena topatzeko lanketa garatuko dute hemendik aurrera.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko irailaren 23a
14. urtea - 646. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Nagusien jantoki publikoa zabalduko dute, urriaren 24an

Adinekoen Udal Egoitzan egongo da jantokia, astelehenetik barikura



Adinekoen Egoitzako kafetegian emango dute zerbitzua. Irudian, bertan emandako prentsurreko bat.

DURANGO Markel Onaindia Herriko pertsona nagusiei laguntzeko pauso esanguratsu bat emango du Durangoko Udalak. Jantoki publikoa zabalduko du, urriaren 24an, 75 urtetik gorakoentzat eta arazoak dituzten 65 urtetik gorakoentzat.

Adinekoen Udal Egoitzan egongo da jantokia, eta astelehenetik barikura bitartean, 13:00etatik 14:30era eskainiko dute zerbitzua. Bi txandatan banatuko dute ordutegia: 13:00etan eta 13:45ean eta gutzira, 50 lagunek jan ahaliko dute bertan. Pentsioaren arabera

ezarriko dute prezioa; 800 eurotik beherako pentsioa dutenek 3,5 euro ordainduko dute menua, eta 800dik gorakoek, 6 euro. Bikote izanez gero, 6 edo 10 euro ordainduko dute, pentsio mailaren arabera. Erabiltzaileek karnet bat atera beharko dute egoitzan bertan.

2016ko aurrekontuan jasozten zen proiektu honegaz, nagusien autonomia sustatu gura dute udal arduradunek.

Udalean, adostasuna

Martitzeneko osoko bilkuran zerbitzuaren prezio publikoak onartu ziren, EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Herriaren Eskubi-dearen (HE) botoekin; PP abstenitu egin zen. Pentsioak barik, prezioak ezartzeko irizpidea

800 eurotik beherako pentsioa dutenek 3,5 euro ordainduko dute menua, eta 800dik gorakoek 6 euro

errenta aitortpena izatea eskatu zuten EH Bilduk eta HEk, "justuagoa" delakoan. Pilar Ríosek (PSE-EE) esan zuen aukera hori aztertu duela gobernuak, baina udalarentzat lan karga handiegi dela eta ezin dutela garatu.

Ríosek gogoratu zuen Durangoko biztanleria gero eta zaharragoa dela; Durangon 1.840 dira 80 urtez gorakoak. Goiztidi Diazek (EAJ) adierazi zuen "proiektu ona" dela Durangorentzat, eta nagusientzako elikadura egokiaz aparte, hartuemanak lantzeko aukera eskainiko duela.

Elkarretaratzeak egiten hasiko dira errefuxiatuen alde, hilero

DURANGO M.O.

Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak elkarretaratzea deitu du biharko, 12:00etan, Andra Marian. Errefuxiatuei elkartasuna adierazteko mobilizazio bat izango da, eta ez da hor geratuko, gainera. Izan ere, hilero burutuko dute kontzentrazioa, hileko lehen zapatuetan.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak elkarretaratzea deitu du biharko, 12:00etan, Andra Marian

"Ez dugulako ezer ikasi. 70 urteren ostean, historia errepikatu delako. Bihar zeu izan zaitzkeelako", azaldu dute deialdian antolatzaileek.

Errefuxiatuen aldeko plataforma ekainean sortu zen, eta uztailean argazki erraldoia atera zuten jendez, errefuxiatuak babesteko prest daudela adierazteko.



Jende ugari batu zen euskaltegiaren inaugurazioan.

AEK-k egoitza berria dauka Santanosten

Joan zen eguenean inauguratu zuten lokal berria

DURANGO M.O.

Orain 50 urte ekin zion Abarrak AEK euskaltegiak eskolak emateari, eta horietatik 40 Pinondon egin eta gero, etapa berri bat hasiko du Santanosten. Joan zen eguenean izan zen lokal berriaren inaugurazioa, herritar eta sortzaile ugari lagunduta.

Egueneko ekitaldian, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren bertsoekin eta Kriskitineko Ixone Aroma eta Aritz Lasarguren dantzekin bataiatu zuten lokala, besteak beste.

Bertan izan zen ere Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaile nagusia.

Erosoagoa

Abarrak kimatu, zuhaitzak berritu lema hartuta egin dute leku aldaketa Abarrakekoek. Aldaketaren arrazoiak, besteak beste, Pinondoko eraikina zaharkitzen zebilela, eta irisgarritasun ikuspegitik eskailera asko zituen, gainera. Hemendik aurrera, Santanosten lokal errosoagoa edukiko dute durangarrek euskara ikasi ahal izateko.

Urriaren 12an hasiko dira jaiak, txosnak Pinondora bueltatuta

Hasiera ofizialaren aurretik, Txosnaguneko txupinazoa hilaren 11n izango da

DURANGO M.O.

Konturatu orduko pasa da urtea, eta hemen bertan daude San Fausto jaiak. Urriaren 12an hasiko dira jaiak -11n izango da Txosnaguneko txupinazoa- eta, aurten, txosnak Pinondora bueltatuko dira, iaz Landako Gunean kokatu ostean. Eraikin horretara bueltatuko dira lehieketa gastronomikoak.

Udalak 226.000 euroko aurrekontua gorde du jaiak antolatze-

ko; bertan sartzen dira ekintzak, azpiegiturak edota pertsonal gastuak. Iker Ocejá zinegotziak azaldu du herriko talde kulturelei egin gura izan dietela lekua egitarauan. Ganso&Cía antzerki taldea, edota Luhartz, Sugarri, Dj Goikolea eta 11 Ikusteko Jaiok musika taldeak dira horren adibide. Egitarauan ez dago izen handiko musika talderik, eta Ocejá azaldu du aurrekontuak ez duela hori ahalbidet-

tzen: "Ezinezkoa da, lehen lez, izen handiko taldeak ekartzea". The Uski's da talderik esanguratsuenak.

Horrez gainera, egitarau anitza egin gura izan dute.

Bestalde, barrakak eta zezen plaza Faustebidea kalean egongo dira. Zezenak Dira-ri dago-kionez, bost egunetan burutuko da, eta, horretarako, "esfortzu ekonomikoa" egin dutela esan dute arduradunek.



Urriaren 11tik 23ra bitartean ospatuko dira jaiak.

Berton Bertokoak Jaurlaritzan erregistratu du bere eskaera

9 eskolatan jantokien gestioaz erabaki ahal izatea eskatu diote gobernuari



Hainbat gurasok osatzen dute Berton Bertokoak dinamika.

DURANGALDEA M. Onaindia Durangaldeko 9 eskola-jantokien gestioaz erabaki ahal izatea eskatu diote Eusko Jaurlaritzari Berton Bertokoak dinamikako kideek. Euren eskaera ofizial egin dute, orain aste bi Jaurlaritzako bulegoetan erregistratu eta gero.

Ikasleen jatekoa bertakoa, sasoikoa eta jantokian bertan prestatutakoa izatea gura dute Durangaldeko bederatzi eskolatan. Dinamika abiatu zutenetik, hainbat atxikimendu jaso dituzte, eta eskola kontseiluek ere babestu dute euren eskaera. Beraz, ez da gurasoen kontua bakarrik. Jantoki eredia aldatuta, umeen osasuna, ingurumena eta tokiko ekonomia babestea da euren helburua.

Laguntza bermatzea

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzara jo dute. Izan ere, instituzio horrek erabakitzen du zelan gestionatu sukaldeak; beste eredu bat ezarritz gero, diru-laguntza

publikoa bermatzea aldarrikatu dute Berton Bertokoak taldekoek. Horretarako, legea aldatu egin beharko luke Gasteizko gobernuak.

Ikasleen jatekoa bertakoa, sasoikoa eta jantokian bertan prestatutakoa izatea gura dute

Beste eredu bat jarritz gero, diru-laguntza publikoa bermatzea aldarrikatu dute Berton Bertokoak taldekoek

Zabalarra (Durango), Landa-ko (Durango), Maiztegi (Iurreta), Traña-Matiena (Abadiño), Zelaieta (Abadiño), Atxondo, Elorrio, Berriz eta Zaldibarko guraso elkarteak dira mugimenduaren parte.

Polemika sortu da Gaztedi Planagaz

DURANGALDEA M.O.

Enpleguagaz lotutako Gaztedi Planagaz polemika sortu da. "Amankomunazgoak Gaztedi Planaren eta Enplegurako Orientazio Zerbitzua- ren kudeaketan erakutsi duen gelditasuna" salatu du EAJK prentsa ohar bidez. EH Bilduk, "joko politikoa" ikusi du zerbitzua- ren aldaketaren atzean.

EH Bilduren eta HEren gobernupean dago Amankomunazgoa, eta jeltzaleen ustez, "enplegua ez da bere lehentasunetako bat". Aldundiak sus- tatzan duen plana Zornotzako Udalak gestionatuko du aurt- en, eta 107.000 euro bideratuko dituzte, %70 aldundiak eta beste %30a udalerriek. Horrez gainera, Lanbidek orientaziorako ematen dituen 51.000 euro "ihes egiten" utzi ditu Amankomunazgoak, EAJren arabera.

Aitor Lopez presidentek "joko politikoa" ikusi du. Plana nahita ipini zela berandu uste du: "Esan genuen irailetik abendura hori ezin dela mar- txan jarri. Aldundiak beste eskualdeetan denboraz ipini du mar- txan; hemen zeren zain egon da? Proposamena adostu- ta zeukaten lehendik, Amankomunazgoa paretik kentzeko". Orientazio zerbitzuari dago- kionez, Lopezek esan du trami- te akats bat eduki dutela, baina laguntza edukiko dutela.

Zahartzaro aktibo baten alde martxan

Biharko ibilbideak adin guztietarako izango dira



Nagusiak aurkezpenean, Pilar Rios (PSE) eta Aitor Lopez (EH Bildu) kargudunekin.

DURANGALDEA M.O.

Adinekoen Nazioarteko Eguna da biharkoa, eta Durangaldean ere ekintza sorta antolatu dute ospakizunerako. Adin guztietarako prestatutako ibilaldietan ehunka lagun batuko dira, zahartzaro aktiboaren alde martxan. Durangaldeko nagusien elkarteek protagonismo berezia eduki dute egitarauaren osaketan, eta euretako hainbat kide egon ziren astelehene- ko aurkezpenean.

Ibilbide luzeak hainbat herri- tan hasiko dira, eta ibiltari guztiak Durangon elkartuko dira amaieran, lagun giroan. Abadiñoan 09:00etan irtengo dira, ferialekutik; Durangon 08:30ean, Andra Maritik; Atxondon

08:30ean, udaletxetik; Elorri- on 08:30ean, plazatik; Zaldibarren 08:30ean, udaletxetik; Berriz- en 08:45ean, probalekutik; eta Garain 09:00etan, udaletxetik. Hain zuzen ere, Garaitik at- erako den zutabea da aurtengo nobedadeetako bat. Bestalde, ibilbide laburrago bat hasiko da Andra Marin 09:30ean, eta beste hiru oraindik eta laburragoak: Andra Marin 10:00etan, Abadiño- ko ferialekuan 10:30ean eta Traña- Matienako eskoletan 10:30ean. Andra Mariko helmuga- n, elkartearen argazki erakus- keta ikusi ahalko da.

Horrez gainera, gaur, 18:00etan, abesbatzen kantaldia egongo da Durangoko musika eskolan.

Elorrioko Zumelegi erreka garbituko dute herritarrek auzolanean

ELORRIO M.O.

Datorren barikuan, urriaren 7an, Zumelegi erreka garbituko dute auzolanean. 09:00etan ipini dute beharrezko hasteko hitzordua, eta elorriarrei deial- di zabala egin diete garbiketaren antolatzaileek. Erreka "oso zikin" dagoela diote, eta zerbait egiteko beharrezko sentitu dute.

Cross Culture Surf elkar- tekoek egin dute deialdia, eta udalaren laguntza ere edukiko dute. Goizean zehar erreka gar- bitzen ibili eta gero, plazan utzi- ko dituzte batutako zikin guz-

tiak. "Bertan dagoena jendeari erakutsi gura diogu", esan du Joseba Attardek. Jendeak botat- ako gauza ugari dago errekan: "Denetarik dago errekan botat- a, bizikletak ere bai".

Lana bete ostean, luntxagaz amaituko dute eguna.

Goizean zehar erreka garbitzen ibili eta gero, plazan utziko dituzte batutako zikin guztiak

Errebonbilloen tiro hotsak itzartuko du herria domekan

ELORRIO M.O.

Urriko lehen domeka berezia izaten da Elorri- on, Errebonbillo Eguna. Historialari- en uste- tan, 1571ko Lepantoko bataila- gaz lotura dauka alardeak; Elo- rrioko gazte batzuek batailan parte hartu zuten, eta etxera heldzean tiroak jaurti zituzten airera, poztasunaren seinale. Domeka honetan ere, Errebon- billoen tiro hotsak itzartuko

du herria. Izan ere, desfilea goi- zean goiz hasiko da, 05:00etan, eta orduan botako dituzte lehen tiroak. Dozena bat neska eta mutilek osatutako taldea izan- go da kalerik kale ibiliko dena. Arratsaldean, 17:00etan, berri- ro alardea egingo dute, eta plazan dantzak ere bai.

Partiduak eta kontzertua

Bestalde, egitarauaren baitan beste ekintza bi iragarri di- tuzte. 11:00etan nesken paleta zirkuituko partiduak egongo dira, eta 13:15ean, kontzertua, Berrio-Otxoa abesbatza, Jaizale txistulari taldea eta Durangoko metalen taldeagaz.



Parte hartu Lehiaketan eta etorri Topaketara!
 Urdulizen, Uribe Kostan (Bizkaia).
 Denok indarkeria sexistaren aurka!

Sari banaketa, tailerrak, erakusketak...
 Informazio osoa www.beldurbarik.org-en eta gune sare sozialetan.



#BBLEHIAKETA
 2016KO IRAILAREN 9TIK AZAROAREN 9RA ARTE.



#BBTOPAKETA
 URDULIZEN, 2016KO AZAROK 26.



WWW.BELDURBARIK.ORG

DURANGALDEA BELDUR BARIK LEHIAKETA

LEHIAKETA *

Nori zuzendua: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren erroldatutako 12-26 urteko gazteei, ikasten edo herri horietako elkarteren batean parte hartzen dutenei.

SARIAK

Kategoria 12-17 urte Lanik onena: 300€ **Aipamen berezia:** 100€
Kategoria 18-26 urte Lanik onena: 300€ **Aipamen berezia:** 100€
Lanak jasotzeko epea: Azaroak 9

TOPAKETA

Sariak Durangaldeko Beldur Barik Topaketan jakinarazi eta banatuko dira.

Data Azaroak 24

Lekua Berrizko Kultur Etxea

Ordua 18:30

Durangaldeako deialdian parte hartu nahi duten gazteek www.beldurbarik.org webgunean aurkituko duten galdetegia bete beharko dute.



* Durangaldeko lehiaketan aurkeztutako lanek zuzenean parte hartuko dute EAE-ko lehiaketan.

www.beldurbarik.org
 jarrera@beldurbarik.org

EAE-KO LEHIAKETA

SARIAK

Kategoria 12-17 urte Lanik onena 500€ **Aipamen berezia** 300€ **Saria ikus-entzunezko ekoizpen onenari** 300€
Kategoria 18-26 urte Lanik onena 500€ **Aipamen berezia** 300€ **Herriaren saria** 300€



Udal kontratuetan klausula sozialak ezartzea onartu dute

ELA sindikatuak aurkezturiko mozioa onartu du Abadiño udalbatzak



Aho batez onartu zuten, martitzeneko plenoan, ELA sindikatuaren proposamena.

ABADIÑO Itsaso Esteban Udalak egiten dituen kontratazioetan hainbat klausula sozial sartzea proposatuz, ELA sindikatuak aurkezturiko mozioa onartu zuten, joan zen martitzeneko udalbatzarrean, aho batez.

Mozio hori onartuta, "Abadiño-ko Udalak edo bere menpeko erakundeek kontratatzen dituzten obretan, herrilanetan eta zerbitzu publikoen kudeaketan gutxieneko baldintza sozialak" bermatzeko konpromisoa har-

tu zuten udalbatzak, Abadiño-ko Independienteek, EAJk eta EH Bilduk aldeko botoa emanda.

Hartutako konpromiso hori bermatzeko, esleipen prozesuak arautzen dituzten baldintza orrietan klausula sozial horiek

errespetatzea eskatuko die udalak lehiaketara aurkezten diren enpresei: "Lanari, gizarte-segurantzari, lan-osasunari eta segurtasunari buruzko xedapenak" betetzea. Enpresek klausula horiek bete ezean, kontratuak eten eta zigorrak ezarriko ditu Abadiño-ko Udalak.

ELA sindikatuaren mozioa babestu arren, LABek ere udal kontratazioen inguruko idatzi bat aurkeztu berri duela azpimarratu zuen EH Bilduko Mikel Urrutiak. "Ez dugu ulertzen zergatik ELArena bakarrik ekarri duzuen plenora", esan zion Urrutiak alkateari. Bi sindikatuak beraien mozioetan egiten dituzten eskakizunak berberak direla erantzun zuen alkateak, eta onartutako idatziak bien eskakizunak islatzen dituela.

Azken urteetan Abadiño-ko Udalak azpikontrataziorako daukan joera ere kritikatu zuen Urrutiak. "Behin-behinekotasuna gutxitzeko konpromisoa hartu zuten udalak aspaldi, baina ez da sinatutakoa bete". Alkateak erantzun zuen Madrilgo gobernuaren murrizketek "lotuta" egon dela udala, eta ez dela gobernu taldearen borondatea kontrataziorik ez egitea.

Katalamixon aisialdi talde berria aurkeztuko dute

ABADIÑO I.E.

Katalamixon izeneko aisialdi talde berria eratu dute Abadiño-ko hainbat gaztek, eta elkarte berriaren jendaurreko aurkezpena egingo dute, gaur arratsaldean. Zelaietan eta Traña-Matienan egingo dituzte aurkezpenak: Txanporta kultur etxean, 18:00etan; eta Errotan, 19:00etan.

Berbaro elkarteak lagunduta, udalaren aisialdi programaren kargu egin ziren duela bi urte, aurten Katalamixon elkarte sortu duten begirale gazte hauek. Abadiño-ko gazteei orain arte eduki ez duten eskaintza egiten jarraitu gura dute: herritik eta herriarentzat eraturiko euskarazko aisialdirako programa.

Lau ikastaro emakumeen jabekuntza eskolan

ABADIÑO I.E.

Aurreko urteetan ere arrakasta handikoak izan diren lau ikastaro eskainiko dizkie udalak Abadiño-ko emakumeei: *coaching* eta *mindfulness* tailerrak, eta zoru pelbikoa indartzeko eta autodefentsa feminista lantzeko ikastaroak, hain zuzen ere.

Urriaren 17tik abenduaren 12ra arte egingo dute *Coaching-a norbere burua eza-gutuzeko, aldatzeko eta ekiteko* izenburuko tailerra, apirilean hasiko da *mindfulness* ikastaroa, otsailean ekingo diete zoru pelbikoa lantzeko saioei, eta azaroaren 18tik 29ra egingo dute autodefentsa feminista tailerra. Ikastaro bakoitzaren hasiera egunera arte eman daiteke izena Errota eta Txanporta kultur etxeetan.

Auzolanean zutundu dute Astxikiko pagoa

Zapatuan altxatu zuten haizeak botatako arbola

ABADIÑO J.D. / I.E.

Palak, aitzurrak, pikatxoiak, motozerra, burdinazko hodi astunak, kableak eta abar hartuta abiatu ziren 45 bat abadiñar Astxikira, zapatuan, hamar bat egun lehenago haizeak botatako pago estimatua altxatzera.

Hiru taldetan banatuta jardun ziren 45 lagunak lanean. Lehenengoak zuhaitza motozerraz inausi zuen, pisua arintzeko, eta, ondoren, katu hidraulikoekin pagoa ahalik eta gehien zuzendu zuten. Bigarren taldeak sustrai ingurua aitzurrekin garbitu zuen, gero

motxiletan igotako lurragaz betetzeko. Hirugarren taldearen ardura honakoa zen: pagotik metro batzuetara, hiru tokitan, burdinazko hodiak lurrean gogor sartzea, ondoren horiek pagora kableen bidez lotzeko. 14:00 inguruan, soka bi adarretara lotu, eta 45 lagunek tiraka altxatu zuten. Poza, txaloak, eta besarkadak. Jan-edanagaz ospatu zuten elkarlanaren emaitza.

Eta han geratu zen pagoa, Astxikiren magalean, sustrai nagusiak zartatuta dituela, erdi burusoi, haizearen menpe baltan... baina zutunik.



Adin guzietako abadiñarrak jardun ziren elkarlanean.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

hitz
liburudenda

artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HITZ lekuz aldatu da!
Orain Artekaleko 23. zenbakian gagoz, lehengotik 20 metrora. Etorri bisitan!



Kudeatzen ditugun euskara planen %40 industria arloko enpresetan garatzen ditugu

Euskararen erabilera indartzeko, lan munduan eragitea estrategikoa da

DURANGALDEA J. Guenetxea
Ia 20 urte dira Emunek lehenengo Euskara Plana martxan jarri zuenetik, eta, gaur egun, euskara ardatz duten hizkuntza, kultura, aniztasun eta parte-hartze aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzen dituen 85 laguneko profesional taldea da. Olatz Olaso Emuneko zuzendari orokorrak dioenez, “120 euskara plan

inguru kudeatzen ditugu, denteriko erakundeetan, administrazioan, sozietate publikoetan, industrian zein zerbitzu enpresetan... Azken hauetan oso garrantzitsua da, eta balio erantsi handia ematen die bezeroari edo herritarrei zerbitzua bere hizkuntzan ematea”. Baina, industria enpresetan ere balio erantsi bat badu euskarak, “alderdi

ekonomikoari begiratzeaz gain, pertsonari egiten dien ekarpenari ere begiratu behar diogu”.

Olasok gaineratu duenez, “Euskara Planen bidez, barne kohesioa indartzen da, eta horren erakusle da guk kudeatzen ditugun euskara planen %40 industria enpresetan garatzen ditugula”. Horrez gain, kontuan hartu behar da enpresak gizar-

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

tean duen tokia: enpresak ez daude bakarrik barrura begira; gizarte batean txertatuta daude, eta gizarteak ematen diona gizar-teari itzultzeko modu bat da.

Enpresetako Euskara Planen bidez lan mundua euskaldundu gura da, eta erakunde euskararen erabilera indartu eta normalizatu ahoz zein idatziz, barne eta kanpo harremanetan.

Hori lortzeko, Emunek euskaraz lan egiteko prestatu eta motibatu egiten ditu langileak.

Euskara eta lan mundua uztartzea prozesu logiko bat da, inbertsio handiak egiten dira gazteak eta haurrak euskalduntzeko, baina gero, lan mundura saltoa ematen dutenean, prozesua gehienetan eten egiten da. Horregatik, euskararen normalizazio prozesuan, lan mundua estrategikoa da.

Enpresak gero eta kontzienteko dira ingurumena, lan-osasuna, kalitatea, bezeroak edo hornitzaileak kudeatzen dituzten bezala, hizkuntzak ere kudeatu behar dituztela. Gainera, hasieran esan bezala, euskarak balio erantsia ematen dio enpresari: enpresa moderno baten irudia, gizar-teagaz konprometituta dagoena, barne bezeroaren gogobetetzearren kezka daukana eta hizkuntzak

ere kudeatzen dituen.

Hizkuntzen kudeaketak duen garrantzia aitortzeko, Kontseiluak eta Eusko Jaur-laritzak ziurtagiriak dituzte, erakundeek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egoki bat egiten dutela egiaztatzen dutenak.



“Emunen euskaraz lan egiteko prestatu eta motibatu egiten ditugu langileak”

OLATZ OLASO

Baina, nola jarri daiteke Euskara Plan bat martxan? Lehenengo, euskarak enpresan duen egoerari buruzko diagnostikoa egiten da. Ondoren, norabidea eta helburu estrategikoak diseinatu dira, metodologia parte-hartzaileen bidez. Diagnostikoaren araberakoak izaten dira proposatzen diren helburu eta ekintzak: ezagutza handitzea, erabilera areagotzea (hizkuntza paisaian, dokumentazioan), langileen motibazioa lantzea eta, horri guztiari txapela jartzeko, erakundetzea edo instituzionalizazioa; hau da, hizkuntzen kudeaketa enpresaren prozesuetan txertatzea eta enpresako organoek horri jarraipena egitea.

Egoitz Jimenez

Ulma CC. Zuzendari Gerentea

“Jendea gogoagaz zegoen plana martxan jartzeko”



Zelan jarri duzue martxan Euskara Plana?

Euskara plana taldeko kooperatiba gehienetan zegoen martxan eta guk orain pare bat urte ekin genion. Diagnostiko bat egitean, lan-taldearen ia %100ek euskaraz zekiela konturatu ginen, eta %80k ohiko hizkuntza zuela. Baina, lantegiko erabileraz galdetuta, portzentajea asko jaisten zen, %20k baino ez baitzuen erabiltzen euskara lanean. Beraz, ezagutzaren eta erabileraren artean alde handia zegoen. Enpresan bazeuden pertsona batzuk gogoagaz joera hori aldatzeko. Zuzendaritzan eta Errektore Kontseiluan ere horren alde geunden, eta Emunegaz Euskara Plana martxan jarri genuen.

Beste zein urrats egin duzue?

Diagnosiaren ostean, oharrak eta mezuak euskaraz idazten hasi ginen. Jendeagaz berba egin genuen batzarrak euskaraz egiten hasteko. Batzarretan eta aurkezpenetan euskara zein neurritan erabiltzen den neurtzeko balio izan digu planak. Sei hilabetero joera aztertzen dugu. Beste ekimen batzuk ere jarri ditugu martxan, euskararen erabilera areagotzeko.

Pantxi Altube

HAZI. Pertsonen arduraduna

“Hazik Euskara Plana izatea erabaki genuen”



Zelan sortu zen Euskara Plana sortzeko asmoa?

2012an IKT, Kalitatea Fundazioa eta IMK batu egin ziren, HAZI sortuz. Erakunde bakoitzak bazuen bere aldetik Euskara Plana Emunekin. Horrela, HAZI ere euskararen inguruko plangintza behar zuela erabaki genuen, eta euskara batzordea sortuta, Emunekin lanean jarraitu genuen.

Azken lau urteotan Euskara Plan bateratu hori gauzatzeko, zelako prozesua garatu duzue?

Barrura begira, langileei baliabideak eta denbora eskaini zaizkie euskara ikasteko. IKTn 120 langile zeuden. Araban dago, eta euskara mailarik baxue- na zutenak ziren. Kalitatean, berriz, ia jenderik gehiena euskaldun zaharra zen, eta apustu sendoa eginga zuten jendea euskalduntzeko. IMKn 150 pertsona ginen, baina HAZIra 18 etorri ginen, eta %90 euskalduna zen. Kanpora begira, bezero batzuek zerbitzua euskaraz ematea eskatzen digute, batez ere lehen sektorean. Administrazioagaz ere lan egiten dugu, baina esparru batzuetan oraindik harremana gaztelaniaz da.

Mikel Bastida

Fagor Ederlan. Zuzendaria

“Euskara Plana indartu gura izan dugu”



Euskara Plana berrindartzea erabaki duzue.

Diskoen negoziara orain lau urte etorri nintzen. Urte batzuk zeramatzaten euskara planetan eta une hartan, zuzendaritzako kide batzuek gogoeta egin ostean, planarekin jarraitu eta indartzea erabaki genuen.

Zein pauso eman duzue?

Batzorde eragile bat sortu genuen. Lan-ildoak fin- katzen joan ginen. Diagnostika ere egin genuen. Aur- rerrapausoak eman ditugu. Esate baterako, batzar batzuk euskaraz egiten hasi gara.

Enpresan bertan, zein da euskararen egoera?

Fagor Ederlan Kooperatiba Elkartearen barruan, 450 pertsona gaude diskoen negozioan. Hiru planta fisiko ditugu (galdategi bi eta mekanizazioa). Era berean, zerbitzu zentralak ere baditugu hiru plantetan lanean gabiltzan pertsonok. Zerbitzuetan, ezagutza oso altua da eta erabilera datua ere ona da. Plantetako erabilera areagotzea da gure erronka.

Goitarrak ETB1eko Auzolan saioan protagonista izango dira

San Juan Bautista ermita eta ingurua atonduko dute Ibon Gaztañazpigaz



Ibon Gaztañazpi aurkezlea, auzolanean jardun duten auzokideekin berbetan.

MALLABIA Itsaso Esteban Mallabiko Goita auzoko bizilagunak ETB1eko Auzolan saioa-

ren protagonista izango dira domeka honetan, 22:00 aldera. Urtero, baserri batek du ermi-

taren eta auzoaren ordezkari izateko ardura. Goita auzoa 11 baserri osaturik dago, eta ber-

tan, San Juan Bautista ermita dute, auzotarren altxorrik prezatuena. Ermitaren inguruan, bolatoki bat, auzo-elkarte bat eta beste hainbat bitxikeria dituzte.

Lan guztiak auzolanean gauzatzen dituzte. Normalean, baserri bakoitzetik goitar batek du auzolanera joateko beharra. Bestela, multa jartzen dute. Domekan auzolanean, ermita garbitzeaz gain, horma pikatu eta margotu, inguruan barreiatutako egurrak jaso, belarrak garbitu, auzotarren lurak banatzeko mugarrak jarri, eta aspaldi aurkitutako hilarri batzuk egoki zigilatu beharko dituzte.

Aurtengo ordezkariak, Idoia Zenikazelaiak, Ibon Gaztañazpi aurkezlearen laguntza jasoko du. Auzotarrek ere lagunduko dute. Horretarako, baserrietatik sastraka kentzeko makina, sega, borra eta traktoreak ekarriko dituzte. Boliña ere han izango da, hondeamakinagaz lana errazten. Programaren ardura-dunek azaldu dutenez, "eguraldiak, hala ere, ez dizkie goitarrei gauzak erraz jarriko. Egindako lanaren sari gisa, ordea, bazkari ederraz gozatuko dute auzo-lagunak, eta baita Ibonek eraman-goto dien sorpresatxoaz ere".

Irakurketa taldea sortzeko gonbita egin dute

Amaraunetik

OTXANDIO J.D.

Nagusientzako irakurketa taldea sortzeko interesik badagoen jakin gura du Otxandio Euskaldunon Amaraunek, eta, horregatik, deialdi bat ireki du, norbaitzuk parte hartzeko prest baleude, euren interesa jakinarazi dezaten. Gura dutenek euskara@otxandio.net helbide elektronikora idatzi dezakete.

Interesa duenarentzat

honako helbide

elektronikoa bideratu dute:

euskara@otxandio.net

Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako gaztetxoei begirako irakurketa talde baina martxan dago dagoeneko. Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko sortu dute, guraso talde baten ekimenez.

35 bat lagun batu dira San Migel eguneko bazkarian

GARAI M.O.

San Migel eguneko bazkaria egin zuten atzo, herriko nagusien elkarteak antolatuta, eta 35 bat lagun batu ziren jaiak lagun-giroan ospatzeko asmoz. Menu berezia jan zuten Herriko tabernan, eta elkarreko bazkiderik nagusienak omendu gero.

Horrez gainera, asteon jokatutako txapelketen sariak

Menu berezia jan zuten Herriko, eta elkarreko bazkiderik nagusienak omendu gero

eman zituzten bazkalostean. Izan ere, asteleheneetik hasita, hainbat karta-joko eduki dituzte: astelehenean briska, martitzenean tutea, eta eguaztenean musa. Gainera, tortilla txapelketan ere parte hartu zuten herenegun.

Horrela, amaiera eman diote Aste Kulturalari.

Baselizetatik ibilbidea Okangoko jaietan

Umeentzako txirrindulari lasterketa zapatuan

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Eguaztenean Donien Atxa jarri zutenetik, jai-giroan murgilduta dabilta Berrizko Okango auzoan. San Migel bezperan hasi eta domekara arte, egitarau zabal batez gozatzeko aukera izango dute berriztarrek.

Esaterako, biharko, umeentzat jolasak eta 18:00etarako txirrindulari lasterketa herrikoia antolatu dituzte jai batzordeko kideek. Lasterketa honetan, txirrindulari eskolako umeek eta 14 urtetik gorakoek parte hartu ahalgo dute.

20:00etan, berriz, Iñaki Etxezarraga 'Etxe'-k 'Bizi' diskoa aurkezteko kontzertua eskainiko du. Herriko musikariak Okango auzoko jaietan ekingo dio bere disko berria aurkezteko birari.

Bestalde, antolakuntzakoek jakitera eman dute, bihar, egun osoan zehar, odolosteak dastatzeko aukera zabala egongo dela.

Domekarako, berriz, ohitura den bezala, Berrizko Baselizetatik ibilaldia antolatu dute. Aurtengoan, ibilbide bi egongo

dira, laburra bata eta luzea bestea. Herriko baselizak elkartzea helburu duen XXII. Ibilaldia, Mikel Deuna baselizatik irten, eta Elizondo, San Lorentzo, Zengoite, San Kristobal Txiki, Urdaixa, Andikoa, San Pedro Txiki, San Fausto, San Antonio eta San Juanetik igaro ondoren, berriz ere, Mikel Deuna baseli-

Zapatuan, egun osoan zehar, odoslotea dastatzeko aukera egongo da Okango auzoan

zara helduko da.

Bestalde, 12:00etan, auzoko hildakoen omenez meza egingo dute, eta meza ostean, herriko Iremiñe Dantza Taldeak euskal dantzen saioa eskainiko du.

Dantzaldiaren ondoren, Berrizko Bertsolari Eskolako bertsolariak eta trikitilariak 2016ko Okango auzoko jaiak amaiera emango diete euren jardunarekin.

Egurrezko jolas gune berria, parkea osatzeko

IZURTZA J.D.

Santo Tomas ermitaren ondoan egin duten umeentzako jolas parkeak gune berri bat dauka. Parkea egiteko erabili duten filosofiari jarraituz, baliabide naturalekin egin dute. Oraingoak egurrezko egitura du. Egurrezko 15 bat zutabe bata besteari josiz osatu dute. Parke osoaren antzera, umeen irudimena sustatzeko helburua du gune berriak ere.

Azken gehikuntza honez, udalak amaitutzat ematen du jolas parke berria. Parkearen filosofia berezia ez da oharkabean igaro. Udal ordezkarien esanetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritatik deitu diete parkearen inguruan galdetu eta aholkuak eskatzeko.



Zaborren tasa igoko du udalak, defizita kendu guran

MAÑARIA M.O.

Hiri hondakinak edo zaborra batzeko tasa igoko du udalak 2017an, martitzeneko osoko bilkuran EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu ostean. Tasa hori ez da aldatu 1999tik, eta udalak eguneratzeko beharra ikusi du, hondakinak batzeko zerbitzua defizitarioa delako gaur egun. Udalarik 27.000 euroko gastua dakarkio, baina zergen bidez 10.000 euro soilik jasotzen ditu. Igoeraren ondorioz, aurtun 13,10 euro ordaindu duten etxeetan 16,93 ordainduko dute 2017an. Industria, komertzio eta jarduerak bako lonjetan ere portzentaje beragaz -%29- igoko dute tasa.

Gainerako ia zerga guztiak bere horretan utzi dituzte. Beste aldaketen artean, pilotalekuarena dago; erroldatuek zortzi euro ordainduko dute ordua, eta erroldatu bakoek hamar, eta argia euro bi kobratuko da. Baina, behar ez duenak abisua eman eta ez du argirik ordainduko. Horrez gain, ekonomia-jardueren zergan hamarreko bat igoko dute koefizientea.

Aitor Urien abadiñarraren ardi gazta Bizkaiko onenen artean dago

Axpen egindako gazta txapelketan hirugarren saria irabazi du



Aitor Urien —eskumatik hasita bigarrena— gaztagilerik onenen artean.

ATXONDO Joseba Derteano Joan zen zapatuan Artzain Eguna ospatu zuten Axpen. Beste hainbat ekitaldiren artean, Artzain-Gazta elkarteak Bizkaiko gazteen 27. txapelketa antolatu zuen, eta Aitor Urien abadiñar gaztearen gaztak hirugarren saria jaso zuen.

Aurtengoa ez da Urienen gazta nabarmentzen duten lehenengo aldia. Iaz, esaterako, txapelketa irabaztea lortu zuen. Aurten Emilia Arana zeanurritarraren eta Markinako Santamañe Elkartearen atzetik geratu da, baina, beste behin,

onenen artean darrari. Txapelketa parte hartu ahal izateko baldintza nagusietako bat nork bere ustiatetik Latxa ardiaren esne gordina erabiltzea da.

Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkarteak (ACOL) antolatutako Artzain

Ez da Urienen gazta nabarmentzen duten lehenengo aldia; iaz txapelketa irabazi zuen

Egunaren barruan, ardi txakuraren txapelketa ere antolatu zuten Axpen. Jose Urien eta Xarpa txakurra izan ziren garaileak, Aitor Urien eta Iak txakurraren aurretik. Jose Ignacio Isusik eta Mendik osatu zuen podiuma.

Eskualdeko 13 bazkide ACOL 1982an sortu zuten elkarte da, eta Latxa ardi arraza autoktonoagaz lan egiten du. Gaur egun 61 bazkide ditu, eta gehienak Durangaldean daude: 17, guztira. Bere hiru barrietateetan, Latxa arrazako 13.000 ardi batzen dira elkartearen.

Aterpe berria Jose Antonio Agirre parkean

ZALDIBAR I.E.

Jose Antonio Agirre parkean estalki bat ipintzeko lanak egingo ditu Zaldibarko Udalak. Arantza Baigorri alkateak jakinarazi duenez, Bermeosolo enpresari esleitu diote obra, eta lanekin urriko lehenengo astean hasi, eta hilabete eta erdiren buruan amaituta egotea aurreikusten dute. Proiektuaren aurrekontu osoa 54.856 eurokoa da, eta Jaurilaritzaren 21.885 euroko diru-laguntza jasoko du udalak.

Luzeran hamar metro eta zabaleran sei izango ditu Jose Antonio Agirre parkeko estalkiak

Luzeran hamar metro eta zabaleran sei izango ditu Jose Antonio Agirre parkeko estalkiak. Egurrezko egitura izango du, eta kristalezkoa sabaia —enpresa esleipendunak Eibarren ipini izan dituenen modukoa izango da Zaldibar-koa, baina txikiagokoa.

Neguan edo euria egiten duenean, ume eta helduei kalean aterpean egoteko aukera eskaintzeko helburuz Zaldibarraren atonduko duten lehenengo gunea izango da Jose Antonio Agirre parkeko hori.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS
SQ-2D



Ez, ezetz da.

Badatoz San Fausto jaiak, duranguarrontzat hain estimatuak direnak. Ospatzeko unea izango da, familiakoe-kin, lagunekin, kuadrilakoe-kin batzekoa. Une berezia izango da, azken batean, eta hiribilduko denentzat zein bisitan datozenentzat ere hala izan dadin saiatu behar dugu.

Azken aldian, sei salaketa jarri dituzte durangarrei egindako sexu-erasoak direla-eta, eta arduratuta gaude. Zer gertatzen ari da? Jaietan zein egunerokoan, denon artean ahalegina egin behar dugu emakumeen kontrako indarkeria oro ekiditeko, denok dugu sanfaustoak zorionez eta askatasunez gozatzeko eskubidea.

Horregatik, denok jarri behar dugu zerbait gure aldetik, eta denok egon behar dugu adi halako erasoak eta jarrera matxistak salatze-ko: pertsonok, instituzioek, eragileek eta abarrek. Ez dadila erasotzaile bakar bat ere geratu lasai, zigorrik gabe, eta ez dadila eraso jasan duen pertsona bakar bat ere bakarrik sentitu.

Emakumeen kontrako indarkeria ere giza eskubideen urraketa bat da, eta denon artean desagerrarazi dezakegu. Gure gizarteak duen arazo bat da, eta irtenbidea gizartearengan berarengan dago, kondentatuz, salaketa jarritz, eta emakumeen kontrako jarrera sexistak eta sexu-indarkeria ez babestuz.

Goza ditzagun jaiak, goza dezagun jendearekin, eta gogora dezagun EZ, ezetz dela beti. Ondo pasa!

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Atzotik, jaietan daude Dudea auzoan

ZORNOTZA > San Migelak ospatzen dabil-tza, atzotik, Zornotzako Dudeako auzotarrak. Eguerdian zabaldu dituzte txosnak, eta tortilla eta mus txapelketak, eta DJ Bullen musikagaz dantzaldia izango dituzte aukeran, gaur. Mozorro Eguna ospatuko dute bihar, eta domekan emango dituzte jaiak amaitutzat.

Hezkidetzari buruzko berbaldia, Kurutziagan

DURANGO > Zer egin dezakegu etxeetan eta ikastolan hezkidetzari lantzeko? izenburuko berbaldia antolatu dute, urriaren 5erako, Durangoko Kurutziaga ikastolan. Marian Moreno Avilesko (Asturias) Berritzeguneko hezkidetzari aholkulariak eskainiko du hitzaldi hori, ikastolako baztarrak gelan, 19:00etan.

Iturritxo kaleko jaietan elkartuko dira, bihar

ABADIÑO > Iturritxo kaleko jaiak dira bihar. Eguerdian, 12:30ean, umeentzako ginkanagaz eta gaztelu puzgarriagaz hasiko dituzte jaiak, eta ugaxo txapelketa egingo dute, ondoren. *Maleta siku* bazkarian elkartuko dira, 14:30ean. Mus txapelketa jokatu dute gero, eta musika izango da, 18:00etatik 21:00etara.

IRITZIA

Kurtsoko lehen asanblada

Ikasturte berria hasi da jada, eta Sorginolan ere martxan jarri gara. Pasa den barikuan, irailaren 16an, dozena bat gazte batu ginen kurtsoko lehenengo asanbladan. Urtea bete zuen Gazte-txeak joan den ekainean, eta ekintza ugari antolatu dira denbora horretan. Uda pasatu da, eta berri ilusionagarria jaso dugu ikasturtea hastearekin batera: Sorginolak izango du Jaietako txosnen txupinazoa botatzeko ardura.

Kurtsolari lehenengo eguneko ilusioarekin ekin diogu, eta, aurten ere, gure helburuetako bat Gaztetxea gazteon erreferentzia gune nagusi bihurtzea izango da. Horrez gain, lehenen-

go urtean sortzen joan diren proiektuei forma emateko ordua heldu da: Musikarien proiektua, Durangoko gazte musikariak batzeko helburua duena; Proiektu Artistikoa, gure kaleak kolorez beteko dituena; eta Ateneoa, literatura eta zinea sustatzeko xedea duena. Eraikina ere badoa forma hartzen.

Datorren ikasturtean, fabrika zaharra gazteon proiektuak gauzatzeko lekua izatea nahi dugu, eta Durangoko gazteok asanbladetara eta gainerako ekimenetara etortzera animatzen zaituztegu!

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Txaber San Pedro | Kulotxa auzo elkarteko kidea | Elorrio, 1984

“Herri mailan ez ezik, auzo mailan ere lan egin behar dela uste dugu”

Auzoari indarra emateko sortu da Kulotxa auzo elkarte; lehenengoz, Kulotxako jaiak antolatu dituzte



> BERBAZ Aitziber Basauri Denboragaz elkar lotu diren hiru auzok osatzen dute Kulotxa: Las 40, Lourdes eta Txanberri. Orain, bertoko merkatari eta ostalarien eskutik Kulotxa auzo elkarte sortu da. Auzokoei zabaltzea da helburua. Lehenengoz antolatutako Kulotxa jaiak utzitako bihararumun “ezin hobean” batu gara Txaber San Pedrogaz.

Kulotxa. Izen honek badu bere istorioa atzetik, ezta?
Askok ez dakite nondik datarren Kulotxa izena. Entzuna dute, bai, baina, ez dakite jatorria: futbol partidu batzuk daude atzean. Garai batean, indar handiagoa zuten auzoek, bertan elkartzen ziren herritarrrak, bertoko koadrilak sortzen ziren... auzoen arteko lehia ere bazen. Bada, auzoen arteko futbol partidu batzuk jokatzeko izena behar zuten hemen. Kulotxa izan zen topatutako izena: Las 40 (KU), Lourdes (LO) eta Txanberri (TXA). Indarra hartu zuen izenak, eta gaur arte

iraun du. Gaur egun 50 bat urte dutenek asmatu zuten.

Asko aldatu da inguru hau.
Industrializazioagaz batera, 60ko hamarkadan sortutakoak dira Las 40, Lourdes eta Txanberri. Elkarrengandik oso banatuta —landak, garia, artoa... zegoen tartean—. Gaur egun, biztanleriaren laurden bat hartzen du inguru honek. Urte hauetan guztietan asko hasi da inguru hau. Gainera, zaharitzen zihonan auzoa asko gaztetu da. Beste indar bat, beste giro bat sortu da. Industrializazioagaz batera, etorkinak etorri ziren asko, eta zelanbaiteko *ghetto*a sortu zen. Hala ere, apurte egin da hori, haien seme-ala-

“**Herritarrek gure auzoa erakarri gura ditugu, hemen gaudela erakutsi**”

ba eta ilobak guztiz integratuta baitaude herrian.

Lehenengoz Kulotxako jaiak ere izan dituzue, oraintsu.
Bai. Herriko jaiak edota bestelako ekintzak antolatzerakoan, plazan edo taberna multzoa dagoen tokietan batzen da dena. Jendea horretara dago ohituta, eta gurea lako auzoak baztertuta geratzen dira —nahiz eta, orain, herrigunetik nahiko gertu egon—. Hartara, guk geuk sortutako jaiak eskaintzea erabaki genuen, eta Kulotxa auzo elkarte ere sortu dugu. Auzoari indarra emateko sortutako ekimena izan da. Momentu batera heldu gara non ez dakigun nor bizi den gure azpian. Garai batean, pentsaezina. Orduko konfiantza eta gertutasuna ez daude bizilagunen artean; oso hotza da gure arteko harreman hori atarian, auzoan eta herrian. Hori apurte gura dugu.

Lortu da? Nola joan dira jaiak?
150 lagun batu ginen bazkaltzeko. Eta, hasieran, gainezka

egingo zuelakoan, izena emateko epea amaitutzat eman genuen. Ikustekoa izan da adin askotariko jendea, elkarri laguntzen, kolaboratzen... egun oso zaila da. Auzokoak behartuta, eta herrikoak gonbidatuta zeuden! Ezin hobeto joan zen dena. Eguraldiak ere asko lagundu zuen sortutako giro horretan. Gainera, aldarrikapen izaera eman gura izan diegu jaiak. Herritarrek gure auzora erakarri gura izan ditugu, hemen gaudela erakutsi. Mugimendua eman gura diogu auzoari, eta Kulotxaren sorrera hura gogora ekarri ere bai.

Errepikatze moduan?

Bai! Asmoa da urtero errepika-

“**Jendea elkartera batzea gura dugu, gelditzea gura ez dugun errubera bat da hau**”

tzea. Irailaren azkenengo zapatuan Kulotxako jaiak ospatzea.

Martxoan jaio zen elkarte. Ibilbidea hasi berri duzue, ezta? Premia ikusi duzue?

Urtarrilean hasi ginen lehenengo pausoak ematen. Zortzi komertzio gaude, auzoan gauden guztiak. Halako premia bat bazegoen, beraz. Egungo egoera ez da onena merkatari txikiak, eta halako ekimen eta ekintzak inoiz ez daude soberan. Hor dago Elorrioko Merkatari Elkarte (EME), eta oso ondo dago, baina, herri mailan ez ezik, auzo mailan ere lan egin behar dela uste dugu. Auzoetara ere begiratu behar da. Herrigunean eta beste bi lekutan ari gara dena batzen, eta hori baino askoz gehiago da herria.

Zeintzuk dira elkartearen helburu eta erronkak?

Kulotxa jaialdian izan zen giroa sortu eta eskaintzea jendeari. Bertara erakartzea jendea.

Auzoko arazo eta kezken bozgorailu ere izan gura du, ezta?
Bai. Azken finean, auzoan beharrezko ikusten diren gauzak aldarrikatzeko sortu da elkarte.

Merkatariak zaudete momentu honetan Kulotxa elkarte.
Hala ere, auzokoak ere batzea gura duzue, ezta?

Halaxe da, bai. Horixe da helburua. Oraindik ere badago lan egiteko prest dagoen jendea, nahiz eta, gaur egun, oso indibidualistak izan. Telebista iragarki batek dioen bezala, “nire etxeko errepublika independentean”. Jendea elkartera batzea gura dugu, gelditzea gura ez dugun errubera bat da hau.

Garai bateko gizartera edo harremanak izateko modura bueltatu beharko genuke?

Ikusten da baietz. Informazio piloa dugu, baina, ez dakigu zer gertatzen den herrian, munduan. Lehengo erara, gauzak pertsonari begietara begiratuz esatera, esandakoa barneratzea bueltatu beharko genuke.

Auzoak hiltzen ari dira?

Denean halako zentralizaziorako joera bat dago. Errazagoa da gauza handiak antolatzea txikiak baino, eta txikia baztertuta uzteko joera dago. Hala ere, txikiak emandakoa ez dizute ematen handiek. Adibidez, gaur egun, makro-kontzertuak baino ez dira egiten. Herrietako kontzerturik ez dago jada.



Eguaztenez aurkeztu zuten Berrizko abendura arteko kultur programazioa.

Abendura arte, 18 kultur emanaldi eskainiko dituzte Berrizen

Datozen hiru hilabeteetarako Berrizko Kultur Etxean antolatu duten programazioa aurkeztu dute, asteon. Guztira, 18 emanaldi dira; dantza, musika zein antzerki ikuskizunak, eta, tartean, Iñaki Etkezarraga *Etxe* herriko musikariaren biharko kontzertua dago. San Migel ermitan aurkeztuko du *Bizi* disko berria. “Ikusita programazio horren barruan zer nolako artistek jo duten, ohorea da zapatuan San Migelen jotzea”, dio. “Hainbeste denboran isilik egon ostean berriro” joko duelako berezia izango da *Etxerentzat* zapatukoa.

Alex Díaz Gorakada antzerki taldeko zuzendariak ere parte hartu zuen programazioaren aurkezpenen. Izan ere, azaroaren 11n, Berrizko kultur etxean

estreinatuko du Abadiñoako taldeak *Titirikontu kontari* ikuskizuna. 2004an aurkeztu zuten obraren birmoldaketa da. Orain hamabi urte estreinatu zuten ikuskizunak bezala, *Zapataria eta iratxoak*, *Barbantxo* eta *Urretxindorra* ipuinak kontatzen dituzte, “baina irudi aldetik gaurkotuta”, azaldu du Díazek.

2008an Kultur Etxea zabaldu zenetik, “programazio orekatua” osatzea izan dutela helburu azpimarratu zuen, bestalde, Seve Alava kultur teknikariak. Abendura arte, diziplina guztietako ikuskizunak izango dira Berrizen, Euskal Herriko, Estatuko zein atzerriko konpainienak. “Esfortzu handia egiten dugu horrelako eskaintza egin ahal izateko”, esan zuen Isoird alkateak.

Iñaki Etkezarraga, ‘Etxe’ (Berriz, 1984) | ‘Bizi’ diskoa kaleratu du |

> MUSIKA Itsaso Esteban Okangoko jaietan, auzo horretako ermitan, zure herrian aurkeztuko duzu disko berria. Zer gorputzaldigaz zaude?

Oso gustura nago, gauza berezia delako biharko kontzertua, lekuagatik batez ere. Umetatik ezagutu izan ditut San Migeleko jaiak, eta beti iruditu zait gauza polita. Berriro martxan has-teko leku ezin aproposagoa iruditzen zait. Ilusio handia egiten dit. Oso polita iruditzen zait musika auzoetako ermitetara eramaten duen programazio hau.

Jon Gurrutxaga gitarrista etorriko da zugaz jotzera?

Bai, bi gitarragaz eta ahotsagaz arituko gara. Gitarren eta ahotsaren soinuagaz eta loop-ekin eta efektuekin ere jotatuko dugu kontzertuetan. Zuzenekoak bereziak izango dira.

Noiztik daukazu Gurrutxagaz hartu-eman?

Trikizio taldean sartu nintzen bertako taldekidea zen, eta nire aurreko diskoan ere lagun izan nuen. Disko honetan, hasiera-hasieratik jardun naiz beragaz: sortutakoa berari pasatu diot, berak moldaketak egin ditu... Gozamina da horrelako musikari batez aritza.

Noiz hasi zen ‘Bizi’ diskoaren sorkuntza lana?

Orain bi-hiru urte hasi nintzen kantak sortzen, eta iaz, gabonak aurretik erabaki genuen diskoa kaleratzea. Estudiora sartzeko bezperara ar-

“Asko pentsatutako lana da diskoa, eta oso gustura nago emaitzagaz”

Berrizko San Migel ermitan aurkeztuko du ‘Etxe’k bere 5. diskoa, bihar



te ibili gara sortzen. Sei hilabetez geratu barik ibili gara lanean, eta oso gustura jardun gara. Asko pentsatutako lana da diskoa, eta oso gustura nago emaitzagaz.

Gustura zaude diskoa zuzenean aurkezteko lortu dituzun hitzorduekin?

Oso gustura, bai. Diskoa atera aurretik lotu ditugu kontzertuak, eta materialik eduki ba-

rik, aretoetako arduradunek konfiantza handia izan dute gudan. Lortu dugu gure zirkuituko aretorik onenetan diskoa aurkeztu ahal izatea. Azarotik aurrera, agenda gehiago osatzea espero dugu.

Gaztea izan arren, dagoeneko ibilbide luze eta ezaguneko musikaria zarelako izango du-te konfiantza zugar...

Azken diskoa plazaratu nuenetik bost urte igaro dira, eta bi zuzenean aritu ez naizenetik. Ez dakit jendeak zelan erantzun duen. Ematen du bost urte ez direla asko, baina badago zalantza jendeak zelan hartuko zaituen hainbeste denbora oholtzetatik kanpo eman ostean. Edozelan ere, sentsazio oso onak izaten ari naiz: askok esan didate bazela sasoa, gogoia dutela disko berria entzuteko.

Orain urte bi zugaz azken elkarrizketa eduki genuenean, beste diskorik ez zenuela kaleratuko esaten zenuen.

Bai, haserre nengoen... Managerragaz eduki genituen arazoan ostean, musika guztiz alboratu nuen, denbora batez. Urtebete inguru eduki nuen gitarra fundan gordeta. Bai-

na, berreskuratu dut indarra. Gainera, aurten asteburuetan dihardut lanean, eta diskoan lan egiteko denbora gehiago izango nuelako ekin nion proiektuari. Igaro nituen momentu txarrak, baina baikor nago berriro, eta kantuetan saiatu naiz hori islatzen. Jendeari bultzada bat eman gura nioke nire kantekin.

Baina, zure kantetan beti agertu da baikortasuna.

Bai, baina honetan gehiago agertzen da positibitate hori. Formatu honez oso gustura sentitzen naiz. Lehenengo hiru diskoak rockeroagoak ziren, taldeagaz jotzen nuen. Hauek jendeagaz konexio zuzenagoa edukitzea ahalbidetzen didate, intimoagoak dira. Hasi ere horrela hasi nintzen, eta oso gustura dihardut.

Hasi zinenetik inguruan eduki duzun hainbat jendek kolaboratu du ‘Bizi’ diskoan. Gorosabelek, Elorzak...

Diskoaren zati bat Iñaki Elorzagaz grabatu dut Estolde-tan-en, eta ahotsak eta nahasketak Lorentzo Records-en. Istoria bitxia izan dut Aitor Gorosabelegaz ere: bikotekideak *Bizirik gaude* diskoa oparitu zidan, eta lehenengo kantak “ez etsi orain, garai txarrak ez dira betiko” esaten du. Niretzako mezutzat hartu nuen, eta sortu berri nuen kanta, *Bizitzaren musika*, Gorosabeli erakutsi eta grabazioan kolaboratzea eskatu nion.

Cine Invisible jaialdiko hamaika film izango dira ikusgai asteburuan, Elorrioko Arriolan

Bihar, etzi eta astelehenean eskainiko dituzte Bilboko Cine Invisible jaialdiko hainbat film Elorrion



'K2 and the invisible footmen' filmagaz emango dute zikloa amaituztat astelehenean.

ZINEMA Itsaso Esteban Asteon Bilbon egiten dabilzan film sozialen Zinema Ikusezina jaialdian lehiatu diren hainbat film emango dituzte, asteburu honetan, Elorrioko Arriolan. Kooperazioari, giza eskubideei,

genero-parekidetasunari, kulturartekotasunari eta elkartasunari buruzko gaiak lantzen dituzten filmak dira ziklo horren barruan eskainiko dituztenak. Aniztasunaren eta egileen sentsibilitate sozialaren erakusle

diren pelikulak.

Urriaren 1ean, 2an eta 3an izango dira Arriolako emanaldiak. Bihar, 22:00etan hasita, lau film labur emango dituzte: kulturartekotasunari buruzko film alemaniar bat, Danimarka eta

Irango sortzaileen elkarlanetik sortutako *Sepideh* izenburukoa, eta garapen jasangarriari buruzko bi: *Chatarra* uruguaitarra eta *Prender la llama*, Espainia eta Ingalaterrako zinegileen elkarlanaren emaitza.

Bi film izango dira ikusgai urriaren 2an, 20:00etan; Txetxu San Larrinagaren *Bijayapura... bidegabekeriaren zaparrada*, 20 minutukoa, eta *Tempo* espainiarra, 79 minutukoa.

Astelehenean, Cine Invisible jaialdiko beste bost film emango dituzte Arriolan. *Vive* dokumentala, lau minutuko iraupenekoa, eta *Migrar no es delito* animazioko lana emango dituzte, batetik, eta baita *Emakume baserritarrek: bestelako etorkizuna ereiten*, *El orden canibal del mundo*, eta *K2 and the invisible footmen* lanak ere. Euskal Herriko ekoizpena da lehenengoa, eta hainbat herrialdeko sortzaileenak dira azken biak.

GEURE DURANGALDEA

ANTTON URIARTE

Musikaria



Lema gaindosiak hildako bat!

Nahi duenak egin beza frog! Hauteskunde osteko aste honetan, egin galde albo-koari zerbait baduen politikariak herritarrokin amankomunean. Zalantzati naiz inork ezer esatekotan, hizkuntza erantzungo lukeen.

Hala ere, irudia eta itxura gailentzen diren mundu honetan, hizkuntza ardatz duen fenomeno baten garaian ez ote gauden pentsatzen nabil azkenaldian: lemak.

Eska edonon gomendioak ongizateaz, galde egin egin behar eta bide onez, eta jasoko dituzu aipua, esaerak, soluzioak eta esloganak; guztiak bizimodu oparo, eder, osasuntsu eta arrakastatsu baten mesedetan itxuraz (itxuraz!).

#Osteanesapideakpilatzenmaisuegingara, edota irudiak eslogan inspirazionalen apaintzen sare sozialetan. Batek jakin Confucio beraren hitzek ere atentziorik emango luketen garaio-tako esaera uholdeetan.

Jakin nahiko nuke, hala ere, esaldiok norbere miseriak estaltzeko ote diren, itxuraz ginetik hitz forman norbere burua maki-latzeko, autoterapiaren bati ekiteko, ala benetan barneratuta ditugun lemak eta esaerak izango diren.

Hala ere, oraingoz sine-tsita jarraituko dut kirolean, hizkuntzan, politikan zein sexuan antzera, zorionak, bizi gogoak eta lemek ere teoriatik gutxiago eta praktikatik behar dutela gehiago.

'Musika entzunaldiak' hasi dituzte, asteon, Durangon

Musika barrokoan sakonduko dute abendura arte

MUSIKA I.E. Asteon hasi dute Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioak antolatzen duen *Entzunaldi Musikalak* zikloa. Musika barrokoa izango da aurtengo ikastaroaren gaia, eta sasoi horretako konpositore ezagunen ibilbidea hartuko dute aztergai irailetik abendura arteko saioetan. Bach, Vivaldi, Haendel, eta Telemann konpositoreez jardungo dira, besteak beste.

Aro musikal horretako lanik esanguratsuenak ezagutzeko aukera izango dute ikastaroko parte-hartzaileek: *Brandenburg kontzertuak*, *Lau Urtaroak*, *Kantatak*, *Gloria* edota *San Mateoren Pasioa*, esaterako. Gainera, musika barrokoa ikuspuntu modernotik ere landuko dute Kurutzesantu Museoko hitzorduetan: Jacques Loussier jazz taldearen edota Miriam Mendez pianistaren Bach-en bertsioren bitartez, esaterako.

Afganistango emakumeen irudiak, Elorrioko Iturrin

Urriaren 14ra arte egongo da erakusketa Elorrion

ARGAZKILATZA I.E. *Emakumeak*. *Afganistan* erakusketa zabalduko dute, astelehean, Elorrioko Iturri kultur etxean, eta urriaren 14ra arte egongo da ikusgai. Gervasio Sanchez argazkilariak eta herrialde hartan bizi den Mónica Bernabé kazetariak 2009 eta 2014 artean buruturiko lana da.

"Afganistanen agintean egon ziren aldian, etxetik kanpo lan egitea, ikastea eta laguntza medikoa jasotzea debekatu

zieten Talibaneke emakumeei", eta horrek eskandalizatu egin zuen mendebalde. Baina, "Afganistango emakumeek beren etxeetan bizi duten dramaren icebergaren tontorra baino ez da hori", diote argazkilariak. Sanchezen eta Bernabéren ustez, zigorgabetasuna orokortuta dago herrialde hartan, nazioarteko komunitatearen eruz, neurri handi batean, eta "konplize egiten gaitu gure isiltasunak eta axolagabekeriak".

Oskara
Kukai Dantza Taldea
Urriaren 1ean, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

Burbujas de papel
Mucab Dans (Katalunia)
Urriaren 2an, 18:00etan

JAT ETXEA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

David Guapo
URRIAK 1
22:30etan
DAVID GUAPO
BAKARRIZKETA

2016 Basoa
El basque
URRIAK 20
00:00etan
BEGIRA PHOTO 2016 "BASOA" FRAKUSKETA

URRIAK 23
18:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZA

“Leishmaniosia prebenitzea eta diagnostiko goiztiarra egitea garrantzitsua izaten da”

Gure Kideko albaitariak diotenez, test azkar bat egitea nahikoa da txakurrak leishmaniosia duen jakiteko



Eva Gorostola, Uritz Alday eta Lehiur Elorriaga dira Abadiñoako Gure Kide klinikako albaitariak.

ALBAITARITZA J.G.

Leishmaniosi gaixotasuna geroz eta ohikoagoa da txakurren. Prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra funtsezkoak dira animalien bizi-kalitatea bermatzeko. Gure Kide albaitaritza klinikan test azkarrak egitea gomendatzen dute, batez ere gaixotasun hori eragiten duen moskitoa bizi den eremuetara bidaiatu dutenei.

Zer da leishmaniosia?

Gaixotasun infekzioso bat da, eta horren barruan, parasitarioa. Endekapenezko gaixota-

suna da, eta ez du tratamendu sendagarririk. Tratamendu aringarriak daude, txakurrak ahalik eta bizi-kalitate onena izan dezan.

Zelan transmititzen da gaixotasuna?

Flebotomo deitzen den moskito batek transmititzen du. Hasierran, moskito hori mediterraneoan zegoen, baina estatuan zabaltzen ari da. Gaur egun, geroz eta gehiago mugitzen garen orporretan, transmisioa geroz eta gehiago hedatzen hasi da. Muga geroz eta gertuago dago. Kumak hemendik kanpo


erosiz gero, izan liteke leishmaniosiaz erostea.

Zein sintoma izaten dira ohi-koenak?

Gaixotasun hau diagnostikatzeko zailtasun handiena sintomen aniztasuna da. Azaleko arazoak, osatu ezin diren zauriak, txakurra errenka ibiltzea, begietan lesioak, giltzurruneko lesioak...

Gaixotasun hau berandu diagnostikatzeak zein ondorio izan ditzake?

Kasu batzuetan urteak ematen dituzte diagnostikatu barik. Aukera hori egon arren, hemendik



“*Diagnostikatzeko zailtasunik handiena sintomen aniztasuna da*”

irten diren galdetzen diegu jabeei, eta ezetz erantzuterakoan beste aukera batzuk aztertzen dira. Kasu bat izan genuen hemen. Bost urteko txakur bat zen, eta Euskal Herritik ez zela irten esan ziguten. Gero konturatu ginen Malagako txakur-hazle bati erosi ziotela eta kumea zela gaixotasun horregaz etorri zela. Proba egin eta gero, positibo eman zuen.

Zein proba egin dezakegu gaixotasuna detektatzeko?

Lehenik eta behin, test azkar bat egiten dugu, odol apur bat atera eta positibo edo negatibo eman dezake. Positibo emanez gero, laborategira bidaltzen da sakonago diagnostikatzeko. Horregatik, oporren ostean, txakurrei test azkar hori egiteko kanpaina jarri dugu martxan. Txakurren jabeak

leishmaniosiarengatik inguruan sentsibilizatzea da helburua. Ardura duenak aukera aprobetxatu dezake.

Leishmaniosia prebenitu daiteke?

Saihestu behar duguna moskitoaren ziztada da. Beraz, kanpora joanez gero, moskitoaren ziztada prebenitzea da garrantzitsua. Pipeta batzuk edo lepokoa jarri daitezke. Badaude tratamendu batzuk, %100eko bermerik ez duten arren. Horrela, immunitatean lagundu egiten du. Era berean, gure zonaldean leishmaniosiak jotako txakurrek bizi-kalitate ona izan dezakete, hemen moskito hori ez dugunez, ez direlako berriz gaixotzen. Aldiz, moskitoa dagoen lekuetan, tratamendua jarri arren, berriro gaixotasuna transmititzen duen moskito horren ziztada jaso dezakete.

Gaixotasun honek txakur arraza guztiei berdin eragiten die?

Bai, eta gizakiari ere eragin diezaioteko. Immunitate kontu bat denez, sarritan gaixotasunak umeei edota nagusiei eragiten die.



Gure Kide
Albaitaritza klinika

Murueta auzoa, 1
48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 946 201 621
Larrialdiak: 655 881 422
cvgurekide@gmail.com
www.gurekide.es



“Inaugurazioan hunkitu egin ziren asko: oroitzapen asko ekarri zizkien erakusketak”

‘Solde’ (1935-2006) margolariaren alabek antolatu dute Durangoko Museoan urriaren 16ra arte ikusgai dagoen erakusketa

> ARTEA Itsaso Esteban

Virginia eta Marian Diaz Gorritik orain bi urte erreserbatu zuten Durangoko Museoa, asteotan ikusgai dagoen erakusketa atontzeko. Enrike Díaz Soldevilla (1935-2006) aitak Durango gaitzat hartuta egindako koadroak biltzen ditu artistaren heriotzaren hamargarren urteurrenean atondu duten erakusketak. 48 lan daude, urriaren 16ra arte, Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai. 1968an egindako Ezkurdiren irudi batek edo 2001eko ‘Atardecer en Durango’ izenburuko koadrotik igarotzen den ibilaldia egitera gonbidatu gura dute ‘Solde’-ren alabek bisitaria. Erakusketaren komisario lanak egin dituen Marian Díezen ahotik ezagutu dugu aita margolaria eta haren obra.



Virginia eta Marian alabak, Enrike Díaz Soldevilla margolariaren, euren aitaren, bizitzaz eta obraz solasean.



Zer moduz joan zen zapatuko inaugurazio ekitaldia?

Oso ondo, aita ezagutu zuten hainbat lagun gonbidatu genituen. Izan ere, belaunaldi hartakoak, *Solde* eta garai hartako Durango ezagutu zutenak omendu gura izan ditugu erakusketagaz. Aitaren gaztetako lagunak eta Durangaldeko artisten elkartearen sorreran kide izan zituenak etorri ziren inauguraziora, eta hunkitu egin ziren asko: oroitzapen asko ekarri zizkien erakusketak.

Erakusketa honen kokaleku Durangok behar zuen derrigor.

Bai, beste inon ez litzateke berdina. Aita ito egiten zen Durangotik kanpo, hemen egoten zen gusturen. Bere margolanetan beste hainbat gai ere lantzen zituen, baina, erakusketa honetarako, Durango agertzen duten lanak aukeratu ditugu: aitak margotu zuen Durangon zehar paseatzea proposatu gura dugu. Lekuak ez ezik, sasoi hartako Durangoko hainbat pertsona ezagun ere agertzen dira koadroetan: Eusebi esne saltzailea edo Jose Bergara abade komunistak, esaterako.

‘Solde’ oso pertsona ezaguna zen Durangon.

Bai, eta asko gustatzen zitzaion jendeagaz egotea —nahiz eta haserretu ere asko haserretzen zen batzuekin... Oso harreman berezia zeukan, bestalde, umeekin. Auzoko ume guztiak inguruan edukitzen zituen beti: harri bat erakutsi eta “zer ikus-

“*Aitak margotu zuen Durangon zehar paseatzea proposatu gura diegu bisitariei*”

ten duzu hemen?” galdetzen zigen, perretxikotara eramaten gintuen...

Zaila egin zaizu erakusketarako lanen aukeraketa egitea?

Ahizpak eta biok etxean ditugunetik, Durango agertzen dutenak aukeratu ditugu. Etxean ahal bezala dauzkagu aitaren hainbat lan pilatuta, eta, erakusketarako, tratamendua egin behar izan diegu koadro batzuei. Pena handia da lan horiek, beste nonbaiten, behar bezala zainduta ez egotea.

Aita margolariaren zer oroitzapen duzu?

Umeen iritzia bakarrik hartzen zuela kontuan, adibidez. Beraiei bakarrik galdetzen zien: “Zer deritzozu koadro honi?”. Beraien ustezko ezjakintasunetik, umeak direla zintzoenak uste zuen. Gogoan dut jendeagaz elkartrukea ere egiten zuela: “Zuk arraina ekartzen didazu, eta nik koadro bat egingo dizut trukean...”.

Durangoko jende askok etxean ‘Solde’-ren lanen bat edukiko du, beraz?

Bai, zapatuan inauguraziora etorri zirenetariko askok hori-



Lekuak ez ezik, sasoi hartako Durangoko jendea ere agertzen da koadroetan.

“*Bere koadroei buruz, umeen iritzia bakarrik hartzen zuen aintzat aitak*”

xe esan ziguten. Hainbat bilduma pribatu daude Durangon.

Zelan egiten zuen aitak lan? Kanean margotzen zuen?

Memoria fotografiko handia zeukan. Intxaurrondo auzoan, bizi ginen lekuan zeukan lonjan ibiltzen zen, baina ez zeukan estudio dei dezakegun horrelakorik.

Zelan uztartzen zuen tailerreko lana, sorkuntza eta familia?

Berak asmatu zuen lanaldi jarraia! (barrez). Oso ondo konpontzen zen. Tailerrean ere oso abila zen, eta denerako denbora ateratzen zuen.

Bizi zela, merezi zuen aintzatespena jaso zuen ‘Solde’-k artista gisa? Zer sentsazio zeukan berak horri dagokionez?

Ez zen batere ondo konpontzen ezarritako botereagaz. Hainbat proposamen jaso zituen, esaterako, arte-merkatari baten birtartez bere lanak saltzeko, baina sekula ez zuen onartu. Hori eginez gero, barruak eskatzen ziona barik, beste batzuek gura zutena marraztu beharko zuela uste zuen. Ez zituen gizartearen konbentzioak onartu gura. Aita posmodernoa geneukan.

Jonathan Castroviejo | Abadiño (Getxon jaioa), 1987 | Movistar taldeko txirrindularia

“29 urte gaz, badut denbora bete-betean asetuko nindukeen garaipen hori lortzeko”

Domina buruan, datorren eguaztenean Qatarrean abiatuko da munduko erlojupeko txapelketan parte hartzeko

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Urte hasieran eroriko larri bat izatetik, munduko txapelketan urreagaz amestera igaro da Jonathan Castroviejoren gaurkotasuna. Algarven (Portugal) etapa baten osteko jaitsieran zale batek tupust egin eta, besteak beste, seigarren lepaorria hautsi zuen otsailean. Errekuperazio delikatuak gaindituta, azpimarratzeko moduko mailan dabil azken aspaldian. Europako erlojupeko txapelketan urrea irabazita, munduko txapelketan dominaren borrokan ibili gura du.

Nork esango zizun otsailean sasoi honetan garaipenetaz berbetan ibiliko zinela...

Bai. Egia esan, martxoan aurreratu izan balidate ze emaitza lortuko nuen handik hile batzuetara, ez nuen sinetsiko. Europako txapelketan urrea irabaztea garrantzitsua da. Daramadan denboraldiaren aurrean sari txiki baten modukoa izan da.

Gertaera traumatikoen ostean, bizitza ikusteko modua aldatu egiten omen da. Zuri antzerakorik gertatu zaizu?

Apur bat aldatu nau, bai. Bizitzarekiko ikuspuntuak areagotzen dizkizu eta, azkenean, ikasgaiak ateratzen dituzu: oro har, bizitzako edozein gauzarekiko errespetua izaten edo, bizikleta, berez, kirol arriskutsua dela onartuta, bizitzan benetan behar dena baino arrisku handiagoak ez hartzen ikasi dut, esaterako. Seguruenik, mentalki indartsuagoa naiz orain.

Bizikleta gainean ibiltzeko modua aldatu dizu?

Apur bat bai, beharbada ez zara mugaraino heltzen. Eta hori lasterketa batean sekula ez dudala eroriko handi edo larririk izan! Baina, hala ere, beti ematen dizu zer pentsatu. Txirrindularitzan badaude muga-mugan zabiltzan une batzuk, eta egoera horietan alferreko arriskurik ez hartzen ikasten duzu.

Fisikoki erabat errekerperatuta zaude?

Hezetasuna ez datorkit bat ere ondo. Noizean behin, tentsio

handiko etapa luzeetan oraindik min izaten dut saman, eta apurtuta izan nuen orno zerbi-kalaren inguruan. Baina, tira, ez da ia ezer. Ukondoan, aldiz, min dezente izaten dut. Kubitu hezurra osatzeko jarri zidaten inplantea kentzeko ebakuntza bat aurreikusita dugu, azaro erdian. Ea ebakuntza eguna laster heltzen den, apur bat deserosoa da eta.

Errekuperazio fisikoa gogorra izan da. Eta psikologikoa?

Jendeak esaten dizu “buena, hiru hilean ez duzu ezer egingo, atsedean hartu eta lasai egon”, baina buruari buelta asko ematen dizkiozu, eta, modu horretara, geldi egotea lasterketetan lehiatzea baino askoz gogorragoa da. Epe laburrerako helburuak jarri izan ditut. Helburu txiki bat jarri, eta hori gauzatzeko beste bat ipini.

Ezagutzen zaituztenek zure izaera positiboa azpimarratzen dute. Txarto egonda ere, Rioko edo Tourreko hitzorduak, esaterako, beti buruan zeneuzkela.

Errekuperazio prozesuan gehien lagundu didan pentsamenduetako bat Frantziako Tourrera heltzeko lan egitea izan da. Parte hartzeko ilusio handia neukan. Arin eta ondo errekerperatzen saiatzeko motibazioa izan da. Eta ondo heldu nintzen. Tourra lehiatu baino hamar egun lehenago, Espainiako erlojupeko txapelketan bigarren amaitu nuen. Sasoi onean nengoen. Baina, jakina, zuzendari denek lez, gurek ere dudak zituzten, lesio larri bat igarotako txirrindulari bat tourrera eramanez ala ez, eta, azkenean, ez nintzen joan. Hurrengo helburua Poloniako itzulia izan nuen. Orduan, ez nekien Riora joango nintzen ala ez; joan baino sei egun lehenago jakinarazi zidaten hautatuen artean nengoe. Eta Riotik bueltan, ez nekien Espainiako Itzulira eramango ninduten. Horrela ibili naiz.

Rioko Joko Olinpikoetan lau segundora geratu zitzaizun brontzeko domina. Gustura zaude erakutsitakoagaz?



Oroitzapen onak ditut. Pozik nago. Garbi dago pena dela orain etxean domina olinpiko bat ez izatea, baina, joan aurretik, sinatuko nuen Rion egindakoa. Begira, iaz munduko txapelketan laugarren amaitu nuen, eta brontzeko dominatik hiru segundora geratu nintzen; Rion berdina gertatu zait. Amorrurik apur bat ematen dizu, bai, baina erakutsitako konstantziagaz geratzen naiz. Egin ditudan erlojupeko ia denetan lehenengo lauren artean sailkatu naiz. Hori oso garrantzitsua da etorkizunari begira.

Elkarrizketaren batean aipatu izan duzu zure palmaren oparoan garaipen handi bat falta zaizula. Europako erlojupeko urrea izan da garaipen hori? Ez dut uste. Espezialista batzuk falta ziren arren, garaipen garrantzitsua izan da, bai, baina nire helburua munduko txapelketan domina bat lortzen saiatzea izan behar da, eta zergatik ez urreagaz amestu? Badakit aurtengo ibilbidea ez dela nire

“**Muga-mugako egoeretan alferreko arriskurik ez hartzen ikasi dut**”

dohaintzat aproposena, baina 29 urte gaz oraindik badut denbora bete-betean asetuko nindukeen garaipen hori lortzeko.

Zergatik diozu munduko txapelketako ibilbidea ez dela zuzentzat aproposa?

Qatarrek ez dauka desnibel txikiarik ere. Ibilbidea erabat laua da. Ez diot niretzat ibilbide txarra denik, baina ni baino hogeiki kilo gehiagoko aurkarien kontra arituko naiz, eta hori desabantaila bat da.

Noiz joango zara Qatarrean? Urriaren 5ean abiatuko gara harantza, handik lau egunera jo-

katuko den taldekako erlojupekoari begira. Ondoren, banakako erlojupekoa hilaren 12an izango da.

Espainiako Itzuliak zer sentsazio utzi dizkizu?

Rioren ostean, apur bat nekatuta nengoen, eta motibazio handirik barik hasi nuen. Gerora, erritmoa hartu nuen, eta itzuli polita irten zait. Etapa denetan maila onean ibili naizela uste dut. Eta, jakina, Nairo Quintanaren itzulia irabazi dugu.

Nairo Quintanaren garaipena, inoiz baino gehiago, talde lanaren ondorioa dela iruditu zait. Movistar indartuta irten da Itzulitik?

Bai, batez ere taldeko garaipena izan da. Errealista izan behar dago, eta, gaur egun, oso zaila da buruz buruko batean Froome gainditzea. Froomek erakutsi du erlojupekoan gehiago dela, eta mendian biak oso berdintuta ibili dira. Talde lana garrantzitsua izan da garaipena lortzeko.

“Denboraldi erdian ez genuen pentsatzen irabazi genezakeenik”

Enrique Barrenetxea-Arandok eta Anartz Onandiak Euskal Herriko Rallysprint Txapelketa irabazi dute azken lau lasterketetan gailenduta



Enrique Barrenetxea-Arandok —garaikurragaz eskuman— eta Anartz Onandiak bost lasterketa irabazi dituzte aurtan.

AUTO LASTERKETAK J.D. Enrique Barrenetxea-Arandok pilotu zaldibartarrak eta Anartz Onandia kopilotu durangarrak Euskal Herriko Rallysprint txapelketa irabazi dute. Denboraldiaren bigarren erdi harrigarri bati esker lortu dute garaipena. Azkenengo lau lasterketak bata bestearen atzetik irabazi dituzte.

Txapelketa garaipen batez hasi zuten, Gabirian. Bigarren lasterketan errepidetik irten eta Mitsubishi EVO IX-aren palierra hondatu zuten. Horren ondorioz, hurrengo hiru lasterketetan ezin izan zioten autoari ehuneko ehuna atera. Aingeru Castro, berriz, puntuak batu eta batu zebilen. Horregatik, “denboraldi erdian ez genuen pentsatzen txapelketa irabazi genezakeenik”.

San Migueleko rallysprintean, ordea, dena aldatu zen. “Bagenekien Castrok normalean ez duela hutsik egiten eta gure aukera bakarra dena ira-

baztea zela”. Pentsatu eta egin. San Migueleko garaipena Karrantzan, Azkoitian eta Aramaion errepikatu zuten.

Bigarren saiakeran Barretxea-Arandok pilotu beterranoa da. 90eko hamarkadan, Euskal Herriko txapelketa hainbat bider irabazi zuen, eta Espainiakoa irabazteko puntuan ere izan zen. Ondoren, laster-

“Irabaztea beti dugu gogoko eta adin batera heltzean gehiago, gazteagoen kontra zabilatzalako”

ketak utzi zituen, eta iaz itzuli zen. Lehen saiakeran, Aingeru Castro nagusitu zitzaion, baina azken lasterketara arte aukerak izan zituen. Aurtan bera izan da azken uanean irabazteko lortu duena: “Irabaztea beti dugu gogoko, eta adin batera heltzen

zarenean, oraindik gehiago, zu baino jende gazteagoaren kontra zabilatzalako eta hori pizgarri bat ere bada”, dio Durangaldea Racing taldeagaz lehiatu den pilotuak.

Tarsicio-Peña hirugarren Iban Tarsicio pilotu abadiñarrak eta Iñigo Peña kopilotu atxondarrak (HirumetSport) hirugarren postuan amaitu dute. Iaz ere postu berean geratu ziren, baina azken lasterketara arte irabazteko aukerak izan zituzten. Aurtan ez. Txapelketa amaitzeko hiru proba falta zirenean, Karrantzan, erretiratu beharra izan zuten matxura baten ondorioz, eta orduan galdu zituzten txapelketa irabazteko aukerarik handienak.

Edozelan ere, denboraldian zehar garaipen bi lortu dituzte Nañarri eta Amorebietako probetan. Euren palmarsa loditu dute, eta datorren denboraldian indarberriturik itzuliko dira, seguru.

Garciak podium bi hiru orduren barruan

> KORRIKA J.D.

Joan zen zapatuan, Dabid Garcia durangarrak podium bi zapaldu zituen hiru ordu baino gutxiagoan. 18:00etan, Ermua proba (10 km) lehiatu, eta hirugarren amaitu zuen. Autoa hartu, Elgoibarrera joan, eta 20:00etarako irteera puntuan zegoen berriro. Bigarren horretan, garaipena lortu zuen.

Elgoibarko proban Durangaldea Running-eko Txomin Maraño taldekidea sailkatu zen bigarren. Orain asteburu bi Zaldibian lortutakoa errepikatu zuten, baina alderantziz. Orduan, Maraño nagusitu zen.



DKTk Bizkaiko kostaldea konkistatu du

> KORRIKA J.D.

Ondarroa-Lekeitio kostaldeko lasterketako lehenengo aldian, errepikatzea gaitza izango den marka utzi dute Durango Kirol Taldeko korrikalariak. Aurreneko lau sailkatuak DKTkoak izan ziren. Lasterketa Aitor Mimenza elorriarrak irabazi zuen (49.57). Ibon San Miguelek (50.24) eta Ekaitz Kortazarrek (51.05) osatu zuten podiuma, eta David Rua sailkatu zen hirukotearen atzetik: 52.40.



ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolari ohia eta enpresaria



Altxoraren bila

Dagoeneko futbol denboraldi berria abian da, hasi da zirkua. Eta, lehoiak tarteko, beste denboraldi zirraragarri baten aurrean gauden susmoa daukat. Ilusio zuri-gorritz ziprztindutako bide oparora agian, helduleku gisa helburu gaitz bezain motibagarriak izango dituen.

Izan ere, emaitza zein joko kezkarriekin emandako hasiera irauli, eta Athletic ligako goiko postuetan sartu da, udazkenari ongi etorri goxoa eman nahirik akaso.

Zentzu honetan, taldearen dinamika eta baikortasunak bat egiten dutela dirudi. Ados nago ezkontza honekin, futbol aditu askok esaten duten legez, ondo hasten denak hobeto bukatzeko aukera handiak baititu. Eta ikuspegi honetatik, badirudi talde zurigorria ez dela aurreko denboraldietan bezala aritu beharko, hots, atzetik aurrera ligan eta beselako txapelketetan (Super kopa, Europa Leagueko aurre sailkapen fasea) hil ala biziko partidak jokatzeko.

Beraz, honek esan nahi du “denboraldi” arrunt baten aurrean aurki gaitzkeela, ligari hasieratik lehenetsuna emanez, koparen zain eta Europa League begiz jota. Egoera honetan, aurtan baldintza ho-beak antzematen ditut taldeak aurreko denboraldietan baino bukaera hobea egin dezan.

Hau horrela gertatuko baltz, zurigorriek egun eman dezaketen maila kontuan hartuta, denboraldia aparta izan daiteke. Zergatik ez amestu? Zergatik ez Ligan Europarako sarbidea eskuratu? Eta zergatik ez Europa League edo/eta Kopan beste altxor bat eskuratu?



HEKi
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak

Albistek eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.


Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

DESKARGATU DOAN !



Available on the App Store | Google Play



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

ARKITEKSAN
ARKITEKTURA BERRIKUNTZA TEKNIKOA
 ENDOZATUEN ARKITEKTURA TEKNIKOA

- OBREN ZUZENDARITZA
- PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
- ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
- NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
- ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
- NEURKETAK, PLANOAK
- ETA AURREKONTUAK EGITEA
- ERAGINKORTASUN
- ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
 622 745 419
 NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
 INFO@ARKITEKSAN.COM



GARBIKETA

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje
 eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
 Tel.: 615 791 215



LOREZAINNTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta diseinua
 Landaketa eta Inausketak
 Ureztatze sistemak
 Barrualde eta kanpoaldea
 Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO
 PATXI: 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
 BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
 48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
 mallabiena@mallabiena.com


Ubide
 iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
 ubide@euskalnet.net
 48200 DURANGO
 188 PK.


UNAI GARAY
 ITURGINTZA
 BEROGINTZA
 GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
 659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
 armairu aurrekaldeen eta
 era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
 Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
 info@jaiobarnizatuak.com
 www.jaiobarnizatuak.com



LEIHOAK

Leihoak 

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
 info@ventanas-durango
 Tel.: 652 736 339
 www.ventanas-durango.com



Profesional onenak zure zerbitzura!

Ezkurdi eta Durangoko Bikainak etxean arrotz sentitzen diren taldeen kasua

Aurten ezin dute Arripausuetan jokatu zelaia ez dagoelako futbolerako homologatuta; ondorioz, Tabirako zelaian dabilta; udalak dio arazoa konpontzeko eginahalak egiten ari direla



Durangoko Kulturala, Ezkurdi eta Durangoko Bikainak taldeek Tabiran jokatuko dute aurten.

> FUTBOLA J. Derteano
Etxean arrotz sentitzea ez da sentimendu atsegina, baina etxe barik geratzea baino hobea da. Egoera horretan daude Ezkurdi eta Durangoko Bikainak futbol taldeak. Aurten ezin dute euren etxetzat duten Arripausuetan jokatu zelaia ez dagoelako futbolerako homologatuta. Ondorioz, senior taldeak Tabiran ibiliko dira. Baina, udalak homologatzea lortu ezik, baliteke datorren urtean talde denek —gazte mailakoak barne— Tabiran sartzeko arazoak izatea.

Arazoa ez da berria. Federazioak hainbat urte daramatza abisatzen Arripausuetako zelaia ez dagoela arauetara egokituta. Hareazko zelaitik belar artifi-

zialerako aldaketa egin zenean, behin-behineko homologazioa jaso zuela gogoratzen du Ezkurdi presidentea Jesus Caceresek; hau da, zelaia apurka-apurka arauetara moldatzeko baldintzapean, bertan jarraitzea baimendu zuen. Aurten arte. Ezkurdi eta Durangoko Bikainak taldeetako presidentek udalaren utzikeria salatu dute. Caceresen esanetan, “urtarrietik bazeukaten federazioaren asmoen berri, baina uzten eta uzten joan dira. Ez da aurtengo kontua, hala ere. Urteak dira arazo honen berri badagoela, eta ez dute ezer egin”. Halaxe uste du Carlos Gomez Durangoko Bikainak taldeko presidentek ere, eta federazioak uste berdina

plazaratu diela argitu du: “Jesus [Caceres] eta biok federazioko presidente Iñaki Gomez Mardonesegaz batzartzean, udalak entzungor egin diela esan zigun”. Biek ala biek pilota udalaren teiltuan dagoela uste dute. Pilar Rios Durango Kirolak-eko presidentek “gai konplikatu” dela onartu du, eta “federazioagaz eta aldundiagaz negoziatzen” dabilzala esan du, “arazo handi honi konponbidea emateko”.

Eta datorren denboraldian? Momentuz, egoera jasagarria da. Senior mailako gizonen hiru taldeak —Ezkurdi bi eta Durangoko Bikainak-eko bat— Tabirara eramane dituzte, eta gazte mailakoek Arripausuetan

jokatu dezakete federazioak hala baimenduta. Baina, baimen horrek aurtengo denboraldia amaitu arte iraungo du. Orduan, Arripausuetak homologatu barik jarraitzen badu, Tabirak ba ote du ahalmenik talde denak hartzeko? Durangoko Kulturala ere kontuan hartuta, 30 talde inguru lirake. Caceresen ustez, egoera hori “bideraezina” litzateke.

Beraz, ataka horretan daude klub biak. Euren etxean obra egokiak egingo dituzten esperoan, Tabiran hartu dute ostatu. Biak udal azpiegiturak badira ere, Arripausuetan sentitzen dute euren etxe. Are gehiago, gaur egun ere hantxe entrenatzen dira. Hau da, zelai batean entrenatu eta bestean jokatzen dute. Egoera deserosoa da: “Gure jokalariek diote urte osoan kanpoan jokatuko dugula”, onartu du Carlos Gomezek. Caceres ere uste berekoa da: “Aurten ez dugu inoiz etxean jokatuko”. Sentimenduzkoak ez ezik kalte praktikoak ere baditu aldaketak. Zelaiaren ‘nortasuna’ ondo ezagutzeak etxeko taldeei ematen dien abantaila galduko dute.

Partiduak domeketan

Tabira futbol zelaiko ordutegia zabaldu egin dute domeketan, talde berriei tokia egiteko. Domeketan goizago ireki (08:00etan), eta beranduago itxiko dute (15:30etan). Gainera, kudeaketa errazteko, txandakatu egingo dira: Batak Tabiran jokatzen duenean, besteak kanpoan jokatuko du.

Zornotza S.T. Gernikara doa, etxean jokatzeko

Larrea konpondu artean, Gernikan jokatuko du; egoera berdinean dago Beti Gol taldea ere

> SASKIBALOA J.D.
Irailaren 13an Zornotzan egingo dako euri-zaparradek kalteak eragin zituzten Larrea kiroldegiko kantxan. Horiek konpondu arte ezin daiteke bertan jokatu. Horrek Zornotzako talde bati baino gehiagori eragiten die. Udalak kalteak konpontzeko prozedura martxan jarri duela adierazi du. Bitartean, Gernikan jokatuko du Zornotzako

talde batek baino gehiagok. Zornotza saskibaloia Taldeak, esaterako, Gernikako Maloste kiroldegian hartuko du Tarragona taldearen bisita, domekan, 12:00etan.

Beti Gol emakumeen areto-futbol taldea da beste adibide bat. Asteburu honetan, Gernikako Santanape kiroldegian jokatuko du etxeko partidua, Stilo kirol kluba taldearen kontra.

Amorebietak lehenbailehen erreakzionatu behar du

Sei partidutan ez du irabazi, eta azken sailkatua da

> FUTBOLA J.D.
Aitor Larrazabal gidari duen Amorebietak kaskar hasi du Bigarren B Mailako denboraldia, eta lehenbailehen erreakzionatu beharra dauka. Orain arte ez du partidua bakar bat ere irabazi, eta azken sailkatua da.

Sei jardunalditan berdinketa bi uzta pobrea da Amorebieta lako talde batentzat. Aurrean antzu (3 gol), eta atzean ahul (8 gol) dabilta. Partidu denetan

jaso dute golen bat, eta bitan bakarrik lortu dute aurkariaren atea zulatzea. Azkenengo hiru partiduetan ezin izan dute golik sartu.

Asteburu honetan, Gernika taldearen kontra jokatuko dute, Urritxan, eta espabilatzen has-teko partidua aproposa dirudi. Gernikarrak ere jaitsiera postuan daude. Gol dezente sartu (9), baina behar baino gehiago jaso dituzte (12) orain arte.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta futbol kluba - Gernika
· Domekan, 17:00etan, Urritxan.

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Zalla futbol taldea
· Zapatuan, 18:30ean, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Lekeitio
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaietan.

Zaldua - Derio
· Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian.

Elorrio - Somorostro
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

LEHENENGO ERREGIONALA

Amorebieta B - Mungia
· Domekan, 18:15ean, Txolonen.

Ezkurdi - Montefuerte
· Zapatuan, 15:45ean, Tabiran.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Otxartabe

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Sasikoa - Goierri

· Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Mallabia B - Pozgarri Adarve

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian.

EMAKUMEEN LURRALDEAKO LIGA

Sasikoa - Soloarte

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

Beti Gol - Stilo Kirol Kluba B

· Domekan, 11:30ean, Gernikako Santanape kiroldegian.

> SASKIBALOA

ZILARREZKO B MAILA (gizonak)

Zornotza S.T. - Tarragona

· Domekan, 12:00etan, Zornotzan.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA (gizonak)

Zornotza - La Salle

· Domekan, 20:00etan, Ixerbekoan.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Zornotza - Algorta

· Zapatuan, 20:00etan, Ixerbekoan.

> PILOTA

SAN FAUSTO TXAPELKETA (final laurdenak)

- Guethary - Donibane Lohitzune

- Hosegor - Bidart

- Pau - Gasteiz

· Zapatuan, 17:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai Alain

- Biarritz - Cabanillaski

· Domekan, 12:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai Alain.

ZALDIBARKO OLAZAR TXAPELKETA

Lau 1/erdian:

- Albizu - Lerena

Binaka:

- Urretabizkaia - Garmendia

/ E.Labaka - Arratibel

· Urriaren 6an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan.

EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK
BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



%50eko DESKONTUAK
DENDA GUZTIAN ESPOSIZIO ALDAKETAGATIK
EZ GALDU AUKERA!

• **Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu** •

Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 DURANGO Bizkaia

• www.epocasukaldeak.com •

jarrai gaitzazu Facebook-en!
f epoca.goro

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
epoca@activahogar.com
20600 EIBAR Gipuzkoa

> Inmobiliariak



ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalela 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. B^o Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.



ETXEBITZAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita esekitoki eta guztiz, despentsa, 2 bainugela, 2 balkoi, ganbara eta garajea. Bigarren garaje plaza baterako aukera. **259.000€.**

DURANGO ASKATASUN ETORBIDEA



• 2 logela horma-armairuekin, egongela handia, sukaldea jarrita esekitoki eta guztiz, bainugela, 2 balkoi. Garaje bikoitza eta trastelekua. **239.900€.**

FRANCISCO IBARRA



• 105 m² erabilgarri. 4 logela, sukalde-egongela handia, 2 bainugela eta balkoia. Berogailua eta igogailua. **230.000€.**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela, 2 balkoi eta ganbara. Berogailua eta igogailua. Hegoaldera begira. **225.000€.**

DURANGO



• Arrilucea 73,56 m² erabilgarri. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, balkoia eta esekitokia, garaje lekua eta trastelekua. Altzari guztiak jarrita. **207.000€.**

IURRETA



• Ikuspegi ezin hobek. Guztiz eraberritua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta terraza itxia. **174.000€.** Negoziagarria.

www.inmoduranguesado.com



ETXEBITZAK SALGAI

J.M.ALTONA



• 100 m². 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **269.000€.**

MATIENA (Trañabarren)



• 3 logela. Sukaldea. Bainugela. Despentsa. Egongela. 2 Balkoi. EGUZKITSUA. **143.000€.**

ZALDIBAR (Erdigunea)



• 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela terrazarekin 45m². Garajea itxia. **154.900€.**

OLLERIA



• 100m². 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. **265.000€.**

ASTEPE



• 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Trastelekua. **199.500€.**

TABIRA



• 75 m². 2 logela. Bainugela. Sukaldea eta egongela. **LEHEN 125.000€ ORAIN 115.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

PODOLOGIA

ESTETIKA

OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onkopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13

ODONTOLOGIA

PSIKOLOGIA

clinicadental hortzklínika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urriaren 2an, 18:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean

'Burbujas de papel'

Múcab Dans konpainia katalanaren ikuskizuna da 'Burbujas de papel'. Dantza, zuzeneko musika eta multimedia nahasten dituen lana da, ikusleen parte-hartzea bultzatu gura duena. Ume zein helduak beraien imajinazioa baliatuz emanaldian modu aktiboan parte hartzea gonbidatuko dituzte.

Musika

:: BERRIZ

URRIAREN 1ean

20:00etan, 'Etxe' disko berria aurkezten, Mikel Deunaren baselizan.

Antzerkia

:: BERRIZ

IRAILAREN 30ean

18:00etan, 'Morse' antzezlan, Elizondo plazan.

:: DURANGO

URRIAREN 2an

18:00etan, 'Burbujas de papel' San Agustinen.

URRIAREN 1ean

22:30ean, David Guapo, Plateruenean.

:: ELORRIO

IRAILAREN 30ean

22:00etan, 'Fakiu', Arriolan.

:: ZORNOTZA

URRIAREN 6an

20:00etan, 'Malmö', Zornotza Aretoan.

Erakusketa

:: DURANGO

URRIAREN 16ra arte

Solde, Durango begietan, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

URRIAREN 3tik 14ra

Emakumeak. Afganistan, Iturri kultur etxean.

Jaiak

:: ELORRIO (Errebonbilloak)

IRAILAREN 30ean

05:00etan, Errebonbilloen goizaldeko kalejira.

11:00etan, nesken gomazko paletako zirkuitua eta lagunarteko partidu bi.

13:15ean, txistu kontzertua.

17:00etan, alardea, plazan.

:: IURRETA

IRAILAREN 30ean

11:00etan, graffiti tailerra eta erakusketa, Dantzari kalean.

16:30-18:30, umeentzako tailerrak, Askondon.

18:00etan, tortilla txapelketa, kaskoan.

19:00etan, meza.

19:30ean, presoan eskubideen aldeko kontzentrazioa, Askondon.

22:00etan, dantzak, Askondon. Los Zopilotes Txirriak kontzertuan, eta Oxabi erromerian.

URRIAREN 1ean

10:00etan, Goiuriara igoera.

11:00etan, bizikleta festa.

12:00etan, potea.

14:30ean, bazkari herrikoia, Askondon. Play back lehiaketa eta Txapito Guzman eta Ibarra Langostinuk.

19:45ean, 'Dispertsiorik ez' flashmoba, plazan.

20:00etan, Luhartz.

22:00etan, bertso saioa.

00:00etan, Luhartz.

02:00etan, The Rigodonians.

URRIAREN 2an

10:00-14:00, nekazaritza eta artisautza azoka, Aldaparapen.

10:30ean, dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik.

11:00etan, meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza.

12:30ean, Herri kirolak eta bakailao txapelketa, plazan.

16:30ean, dantza saioa.

20:30ean, herri afaria, Arantzak eta Pantxok alaiturik.

22:00etan, jaien amaiera. Erromeria, gauerdia arte.

:: ZORNOTZA (Dudea)

IRAILAREN 30ean

12:00, txosnen irekiera.

20:00etan, tortilla txapelketa.

20:30ean, mus txapelketa azkarra.

22:00etan, DJ Bull.

22:30ean, banakako bolo txapelketa.

URRIAREN 1ean

09:30ean, I. San Migel padel txapelketa.

10:00etan, auzoko ermitetatik ibilaldia.

12:00etan, puzgarriak.

13:00etan, igel txapelketa.

17:30ean, Xaibor eta binakako briska txapelketa.

19:30ean, iberiar produktuen apustuak.

21:00etan, afari herrikoia, Kanbio jatetxean.

22:30ean, Titau taldeagaz dantzialdia.

URRIAREN 2an

12:00etan, padel txapelketaren finala, meza nagusia eta luntxa.

17:00etan, bingoa.

19:00etan, parrillada eta txokolatada.

20:30ean, jaien amaiera.



Dantza

:: DURANGO

URRIAREN 1ean

20:00etan, 'Oskara', Plateruenean.

URRIAREN 4an

18:00etan, AIKO ikastaroa, Plateruenean.




Berbaldia

:: ELORRIO

URRIAREN 4an

18:15ean, bularreko minbiziari buruzko hitzaldia, Iturri kultur etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

El hogar de Miss Peregrine

- **barikua 30:** 19:30/22:00
- **zapatua 1:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 2:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 3:** 18:30/21:00
- **martitzena 4:** 20:00

Cigüeñas

- **barikua 30:** 22:00
- **zapatua 1:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 2:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 3:** 21:00
- **martitzena 4:** 20:00

Florence Foster Jenkins

- **barikua 30:** 19:30/22:00
- **zapatua 2:** 19:30/22:30
- **domeka 3:** 19:00/21:30
- **astelehena 4:** 18:30/21:00
- **martitzena 5:** 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

Cine Invisible jaialdiko film sozialak

- **zapatua 1:** 22:00
- **domeka 2:** 20:00
- **astelehena 3:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Florence Foster Jenkins

- **barikua 30:** 20:15
- **zapatua 1:** 19:30/22:00
- **domeka 2:** 19:30/22:00
- **astelehena 3:** 20:00
- **martitzena 3:** 20:15

Mascotas

- **zapatua 1:** 17:00
- **domeka 2:** 17:00

URRIKO AGENDA



23

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIA ETXEA ATZEAN UTZIRIK

10:00 Ibilbide gidatua, Elkargunea: Plaza Aita San Miguel (Gastelaniaz). Leku-kopuru mugatua.

29

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIA

16:00 Ibilbide gidatua, Elkargunea: Plaza Aita San Miguel (Euskeraz) leku-kopuru mugatua. Informazioa eta erreserbak: 673 005 981 / ejardunaldiak@gmail.com.

DIRU-LAGUNTZAK

Udal kirol-instalazioetan norberak kirola egiteko, Euskarazko eta Musika diru-laguntzak eskatzeko epea urriaren 3tik abenduaren 2ra arte izango da.

GIZARTE-ONGIZATE SAILA – Kirolariei beka

2016. urteko diru-laguntzak eskatzeko deialdia eta oinarri arautzaileak, epea zabalik urriaren 21era arte:
- Emakumeentzako kirola sustatzeko (herriko kirol elkarteak).
- Iurretako banakako kirolariei beka emateko.

GIZARTE-ONGIZATE SAILA "BELDUR BARIK JARRERA 2016" LEHIAKETA

Oinarriak: www.beldurbarik.org eta www.iurreta.net. Lanak nora bidali: jarrera@beldurbarik.org. Azaroaren 9ra arte

Informazio gehiago

Ibarretxe kultur etxean (946 200 342) - www.beldurbarik.org

> BOTIKAK**BARIKUA, 30**
09:00-09:00**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 1**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

De Diego
Intxaurren 22. - Durango**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Unamuzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**DOMEKA, 2**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 3**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 4**
09:00-09:00**Unamuzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00





Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 5**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 26**
09:00-09:00**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> EGURALDIA**

ZAPATUA	17° / 12°	
DOMEKA	20° / 12°	
ASTELEHENA	27° / 15°	
MARTITZENA	26° / 15°	
EGUAZTENA	23° / 15°	
EGUENA	26° / 16°	

> ZORION AGURRAK zorionak@anboto.org
eguzteneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com **Gozatu Gozotegia**Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu.
Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.**> Gure txapeldunak 8 urte bete zituen, irailaren 22an. Jarraitu holan, hain alaia izaten! Muxu handi bat familia osoaren partez!****> Zorionak, bikote! Heldu da eguna. Ondo pasa ahaztuko ez dozuen egun honetan! Elorrixoko zuen lagunak!****> Zorionak, Elena, Matienatik, zure aingeru guardakoaren, zure aingerutxo Rubenen eta Amatziko lagunaren partez.****> Aiorak 7 urte bete dauz! Zorionak etxeko danen partez! Ondo pasau egune!****> Iratik urriaren 1ean 15 urte beteko dauz! Zorionak Ijorretako laguntxo danen partez, eta besarkada bat Garazi eta etxeko danen partez!****> Oihanek, etxeko morroskuek, 2 urte ein dauz irailaren 26an. Zorionak etxekuen partez.****> Zorionak, Urko! Zapatuen 4 urtetxo... Milaka muxu etxeko guztien partez!****> Zorionak, Ekain, zure 9. urtebetetzean! Musu handi bat aita, ama eta Oihanen partez!****> Zorionak, Laia! Besarkada eta patxo potolo bat etxeko danen partez!****Lekuan lekuko jaiak ospatuz
Ondo pasa Iurretako jaietan!**

“Norbere buruagaz egoteko momentu hori ematen dizu Latinoamerikak”

Zazpi hilabete egin ditu Erdialdeko Amerikan eta AEBetan bidaiatzen, eta “motxila hustuta” etorri da

> AKUILUA Aitziber Basauri
Durangotik irten beharrak bultzatuta, Mexikora bidea hartu zuen psikologia ikasketak egin dituen Unai Lizarralde. Mahahual-en —Cancun alboan— hilabete egin zuen, lanean. Gero, Guatemalara eta Hondurasera joan zen. Bidaia AEBetako hegoaldean amaitu aurretik, Mexiko zeharkatzeko tartea hartu zuen. Durango-ko Intxaurren lanean hasi da orain, eta naturopatia eta irasaren irakurketa ikasten ere bai.

Durangotik irten beharrak eraman zaitu Mexikora, ezta?
Bai. Mexikoko Karibean jate-txe-hotel batean aritu nintzen. Hondartzan ahalik eta txukun eta politen uztea zen nire lana, turista estatubatuar eta kanadiarrek ‘Oh! So amazing’ esan zezaten (barrez). Ederto egon nintzen. Kokatzeko eta lasai egoteko, hilabete hartu nuen Mahahualen. Gero, Belice gurutzatu eta Guatemalara heldu nintzen. Aitziber Areitio mañariarragaz egin nuen bat han.

Bidaia-laguna topatu zenuen?
Bai. Auto-stop eginez bidaiatu genuen biok Guatemalan zehar, hilabetean, motxila bizkarrean. Oso bidaia polita egin genuen. Gero, bera Mexikora joan zen, eta ni Tegucigalpan (Honduras) bizi den durangar bat bisitatzera. Astebete egin nuen han, eta, berriz Mexikora sartzeko, Honduras eta El Salvadorretik Guatemalaraino igo nintzen. Chia-pasetik sartu, eta Mexiko zeharkatu nuen. Lau bat hile egin nituen, lagun bat Dallasera (AEB) lanera zihoala jakin nuen arte.

Eta haraxe joan zinen...
Astebete egin nuen han. Ondoren, 28-30 ordu egin nituen autobusean, Oklahomatik Arizonara, Mexiko Berria gurutzatuta. Osaba dut bertan. Azken bi asteak Los Angelesen egin nituen, txikitako lagun baten etxean. Santa Monikan egon nintzen: Pacific Blue totala!

Deskonektatzeko joan zinen. Bueltarako eguna lotuta?
Ez. Aukera guztiak zabalik joan nintzen.

Irailen bueltatu zara.
Bai. Bakarrik egotera, buruari buelta asko ematen dizkiozu: zer egin, ikasi ala lana topatu, etorri ala hilabete batzuk gehiago egin... Niretzat urtea, umeentzat lez, ikasturteagaz hasten denez, hemen nago.

Nolako esperientzia izan da?
Oso ona. Pertsonalki asko lagundu dit. Halako bidaietan, gauza txarrak pasatuta ere, ikasi egiten duzu horietatik. *Negatibo* berbak ez du lekurik halako bidaietan. Ezinezkoa da. Dena da positiboa. Pertsona lez asko hazten zara. Tableta txiki bat baino ez dut eraman. Beraz, guztiz deskonektatu dut.

Zer eraman zenuen motxilan, eta zer ekarri duzu bueltan?
Bidaiatzeko motxilaz gain, neurea ere eraman nuen, pertsonala, harri askogaz. Han, arropa asko bota eta oparitu dut, eta bidean harri asko utzi ere bai. Nirekiko beste lasaitasun bat ekarri dut. Neure burua maitatzeko gaitasuna asko landu dut han.



Drogomenpekotasun arloan lan egitetik urdaitegian aritze- ra pasatu zinen...

Drogomenpekotasun eta sexualitate teknikari gisa lan egiteak esperientzia pertsonal eta akademiko handia eman dit. Baina, lana etxera eramateak asko eragin zidan maila pertsonalean. Ez nekien hori kudeatzen. Aldaketa behar nuen, eta urdaitegiko lana etorri zen. Esperientzia ederra izan da, asko zaintzen ninduten, ne nintzen-eta gizon bakarra! (barrez).

Txutxumutxu ugari?

Bai! Eta neu ere kuxkuxerotoxa ere banaizenez... (barrez)

Erabaki drastikoak hartzekoa zara?

Ez. Alderantziz esango nuke nik. Baina, ez da lehen aldia halako bat-bateko erabakia hartzen dudana: psikologia ikasketak amaitu eta egun gutxira, Ekuadorren nengoen, GKE bategaz lanean. Peru eta Bolivia ere bisitatu nituen orduan.

Zer du Latinoamerikak?

Hizkuntza, eta bizitza pausatua. Norbere buruagaz egoteko momentu hori ematen dizu Latinoamerikak. Itzelak pasatuta ere, lasai daramate bizitza. Oso zabalak dira, eta jendeagaz komunikatzeko oso erraza da. Kulturalki asko erakartzen nau; eta indigenen munduak ere bai. Euskal hitzun moduan enpatia handia sentitu dut.

LAUHORTZA

PAUL BUSTINDUI

Kazetaria



Beldurrak uxatuz

Beste aste batez, eraso sexista bat jasan dugu Durangaldean, azken boladan gertatzen den enegarrena. Durango Rugby Taldeak AS Bayonne talde lapurtarra gonbidatu zuen lagun arteko lehia bat jokatzeko, eta gauean, Iparraldeko jokalariek iskanbila sortu zuten Goienkalen. DRT-ko tabernan zegoen neska talde batek irain fisiko eta psikologikoak jasan zituen Baionako jokalarien partetik. Nesken salaketaren ostean, Durangoko taldeak lapurtarrekin harremana etetea eta gertatutakoa salatzea adostu zuen. Baionak, ostera, bere jokalaria defendatzeko erabaki nazkagarria hartu zuen, erasoaren fidagarritasuna zalantzan jarriz.

Tamalez, Erdi Aroan jarraitzen dute askok. Erasoen aurkako protokoloak edo berdintasuna bultzatzeko ekintzak oso urriak baitira. Erasok, zoritxarrez, oraindik ere edonon gertatzen dira; ezberdintasun bakarra da, hemen, emakumeak salatze beldurra galduz doazela. Behar bada, beste leku batzuetan, erasotzaileak babesten jarraitzen duten bitartean, emakumeek beldurra izaten jarraituko dute. Hori uxatu beharra dago, eta salaketa da bidea.

Idazteko bi arau baino ez zirela behar zioen Oscar Wildek: idazteko zeozer izatea, eta esatea. Erasos sexistekin ere berdina gertatzen da. Erasoa gertatzen denean, esateko pausoa ematea funtsezkoa da. Beldurra alde batera utzi, eta erasoak salatu beharko lirateke. Hauze da bidea. Ez dituzte isilduko, eta kasu batzuetan gertatzen ez den bezala, erasotzaileak ez du babesik izango. Ez daude bakarrik!



XVIII. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA

Urriak 2 // Andaparape 11:00-15:00

Txahala burduntzi erara / Artisautza / Umeentzako tailerrak

